



Apoyos Metalicos deslokalizatu dute / 9





Lakuntzako jaietako txupinazo alternatiboan omenaldia egin zioten Fran Baldari.

"Justua ez den egoera bati aurre egin beharko diogu"

FRAN BALDA ARAÑA 11/13 SUMARIOAN AUZIPETUA

Arbizuarra eta beste 46 euskal herritar Espainiako Auzitegi Nazonalean epaituko dituzte astelehenetik aurrera. Sumarioak 5 pieza ditu eta bera Herrirakoan dago

E. Carreño / A. Alvaro ARBIZU

Igandean joanen dira Madrila, Mirentxin Gidariak utzitako furgonetetan. "Dinamika pila bat eta jende pila batekin egon beharra, herrian eta Sakanan

mobilizazioak, mozioak, urduritasuna", horiek guztiek uda "luzea" bihurtu diote Baldari. Hala ere, "ongi" dagoela dio. Fiskalak zera leporatzen dio: erakunde terroristan parte har-

tze aktiboa (11 urteko espetxe zigor eskaera), terrorismoaren goratze jarraitua egitea (2,6 urte), terrorismoa finantzatzea (6 urte) eta kautela-neurria urratzea (0,11 urte).

Zer zen Herrira?

*Egin dezagun bidea kanpaina izan zen 2011n. Jende mordoxka bat biltzen ari zen presoan eta iheslarien gaia konpontzeko nahiarekin. Kristoren manifestazioak egin ziren. Herrira sortu zen zegoen zabaltasun hartatik, eta ikusten zen antolatu beharretik. Jende multzo bat elkartu ginen eta pausoak ematen hasi ginen Herrira sortzeko. Desagertzeko asmoarekin jaio zen, helburu garbia zelako: preso eta iheslariak etxean egotea. Lema zen: *kaleak bete, kartzelak husteko*. Bizi zen itxaropen eta gogo hura, behingoz kartzelak husteko nahi hura... Horren inguruan bildu ginen eta hasi ginen jendea eta nahi hori antolatzen. Euskal Herrian kristoren gogoak zeuden eta ikusi zen, zeren, bat-batean, 200-250 Herriraren talde sortu ziren. Egoera berezia bizi zen Euskal Herrian ETak bere jardura armatua uzten zuela esan zuelako. Egoera berezi horretan sortzen da Herrira. Zerbait berria, freskoa egin nahi genuen. Koloru urdina, poza, mobilizatzeko askotariko jendea bildu, mobilizatzeko era desberdinak saiatu... Hori zen, jendearengan zegoen ilusioarekin gauzatu zen mugimendu bat.*

Zergatik jo zuten haren kontra?

Estatuek-eta daukaten aldagai nagusia da beti errepresioa. Beti saiatzen dira errepresioa erabiltzen, duten armarik potenteena. Euren helburuak lortzeko zerbait gustatzen ez zaienean horrelako golpe errepresiboak ematen dituzte. Garaiko Espainiako Barne Ministroak esan zuen: momentu horretan Herrira zen ilusio hura nolabait biltzen zuena, mobilizazio ahalmen handia zuena, jende asko herri askotan antolatuta. Hori bidetik kendu behar zen. Garai hartan Herriraren jardura nagusia zen Parot doktrinaren kontrako salaketa. Justizia eza zela esaten genuen, presoek kalean egon behar zutela. Europatik etorri zen berri on hori. Ia ehun preso etxera etortzea lortu zen. Testuinguru horretan ematen da Herriraren kontrako

operazioa. Hori lantzen ari ginen eta, nolabait, zapuztu nahian: badoa, egoera berrian, honek ilusioa ekar dezake... Ba, maki-la eta azenarioa. Europatik horrelakorik badator, orduan Herrirari egurra. Tartean nintzen. Jende askok sufritu du kartzela gure herrian. Jende askok esaten du elkartasuna maitasun keinu inportante bat dela. Jende askok asko eman du eta maitasun asko erakutsi du. Eta nire inguruan, zorionez edo zoritxarrez, horrelako jende asko egon da, kartzela ezagutu duena eta bulkatzen zaitu lan hori egitera. Erdian topatu nintzen momentu hartan, tokatu zitzaidan.

Fidantzapean aske gelditu zinen. Zein baldintza behar izan dituzu 2015eko lastailaren 16az geroztik?

Jende askok Euskal Herrian nozitu zituen baldintzak dira. Lehendabiziko atxiloteta 2012ko irailaren 30ean izan zen. Atxilotu eta baldintza batzuekin askatu gintuzten: 15etik behin epaitegian sinatu behar dugu, estatutik ezin dugu atera (ateratzeko baimen bereziak eskatu behar entzutegian), ezin dugu preso eta iheslarietara zerikusia duen edozein mobilizazio edo dena delakoetan parte hartu eta abar. Egoera horretan nengoela bigarren atxiloteta heldu da (2015eko ilbeltzaren 12an), esaten dutelako jarraitzen dudala presoan eta iheslarien aldeko ekimenak egiten. Kartzelara eramane (9 hila-bete) eta 10.000 euroko fidantza-pean gelditu nintzen aske. Baldintzak berdina dira.

Fiskaltzaren eskaeraz zer balorazio egiten duzu?

Eskaerak dira eskandalagarriak. Alde batetik, kristoren amorrua ematen dizu, zeren pasatzen dituk, beti egiten dute. Bestetik, nabaritzen duzu inguruan egoneza inportanteak sortzen dituela. Beno, aurre egin behar. Gogor eta indarrez. Inguruan jende asko dago. Larunbatean ere Arbizukoa harrigarria izan zen. Halako egoerak hunkitzen zaitu. Baina, hori beraiek eskatzen dute, euren neurrigabekotasunean. Justua ez den egoera bati

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

EtX pasiboetarako egokia
s 9000

Isolamendu nukleo indartsua

Beirak lehorrean jarrita

Aparteko azala koloreztatua



Larunbatean Arbizon katea egin zen plazatik Fran Baldaren jaiotetxeraino.

aurre egin beharko diogu. Eta aurre egiten ari gara ahal dugun moduan. Eta ez bakarrik. Aparte jendea herrian, gu ere 47ak, elkar babestuz, elkarri lagunduz.. **Defentsa prestatzeko bilera asko izan dituzue?**

Bagabiltza. Epaiaketaren dataren berri maiatza inguruan izan genuen. Alde batetik, gure asmoa zen gizartea zetorrenaz gaztigatzea. Hori, uste dut, lortu dugula. Baina ibili gara igeriketan ubelde nahiko latzean, zeren hauteskundeak ziren hasieran eta hor ez genuen lortzen gure kanpaina sartzea, injustiziarena, kalera begira. Baina ordutik hona izan dugu aukera abokatuekin hitz egiteko eta eurekin egoteko. Geldi-geldi prestatzen joateko. Bakoitzaren eskaerak. Dena bat egin dute, baina kausaka zatituta gaude: Etxerat, Jaiki Hadiko, bitartekariak, abokatuak eta Herrira. Eta bakoitzak horren barruan bere berezitasunak ditu. Zeren Herrirakoek ez ditugu akusazio berdinak.

Hor ere Altsasuko Auzia heldu da. Tartean Amaia Izko eta Jaione Carrera abokatuak daude...

Asko harrapatu gintuztenez, hor profesionalak eta beste lan batzuk ere badituzte, Altsasukoena... Dena batera tokatzen da eta hori kudeatu behar da. Astelehenean hasten dugu epaiketa, asteazkenean Altsasuko Auzia. Konplikatu, baina aurrera egiteko bidea besterik ez dago.

Epaiaketak iraun ditzakeen hiru hilabeteetan auzi-gelan presente egotera behartuta zaudete?

Printzipioz, bai. Ezinbesteko kasurik ez baldin baduzu (amatsuna, gaitzen bat...) han egon behar duzu. Hiru hilabete dira, gutxi gorabehera 24 egun, hila-beteko, gutxi gorabehera, zortzi egun izanen dira. Batzuetan aste batean hiru egun, beste batean

lau, beste batean bi. Joan-etorria eta han egon beharra. Batzuk lana utzi beharko dute. Familia, haurrak... dena. Haurrak aipatuta, 18 urtetik beherako 38 ume-ren ama-aitak gara. Horrek suposatzen duen zailtasun guztiekin: zer pasatu daitekeen etxean azaltzerakoan, zer egoeratan... Hori ere problematika inportantea da. Umeekin bezala, gurasoak, edadeko jendea, denetarik dugu. Egoera humano indartsu bat dugu aurrean, bai.

Bestea, ekonomikoa da, ez?

Madrilera jaistea, lo egin behar duzu, han egon behar duzu, aparte zure defentsa pagatzea... Gauza asko dira. Azkenean, dirumontoi bat xahutzen dizu halako egoera batek. Ibili eta buelta, zure bizitza sartzen da. Gure herri honetan halako kontzientzia-kolektiboa dago eta gauzak egiten badaki. Elkartasun politikoaz aparte, ekonomia-elkartasun ere etortzen da. Jendeak gauza asko, eta bikainak, ari da egiten herrietan. Gero nabari da. Horrek epaiaketari aurre egiteko bidea emanen digu, bai.

47ak herrira. Balda herrira. Dinamikak izan dira bai Euskal Herrian, bai Arbizon. Zer iritzi.

Esker hitzak motz gelditzen dira. Latza da jendeak egiten duena. Inguruan jendea buru-belarri uda guztian. Jendea oporretara joaten da, eta argazki pila bat. Ikaragarria izan da. Ez bakarrik Arbizon, Sakanan, gainontzeko herrietako plataformak... kris-toren lana egin da, bai.

**"ESKAERAK
ESKANDALAGARRIAK
DIRA. BAINA
INGURUAN JENDE
ASKO DUGU"**

Epaiaketa ez egiteko akordio bat onartzeko aukera aipatu zenuten larunbatean.

Hasieratik edozein egoerari aurre egiteko arduraz egon gara. Une honetan ez dugu inolako akordiorik. Baina edozein planteamendu etorrira ere, begiratuko genuke, aztertuko genuke, arduraz jokatu genuke. Etortzen denari aurre egingen diogu. Erabaki kolektiboak hartu eta horrekin beti aurrera, argi izanik ere, orain arte egin ditugun gauzak, kalean egon garenean, Herrira sortu genuenean, presoen defentsan egon garenean, mediku-laguntza ematen, edo familiarak... Inportantea da azpimarratzea 47ek herrian egon behar dugula. Baina denak egon behar dutela etxean. Bada garaia gainditzeko hainbeste sufrikario utzi dituen eta gaur egun uzten dituen egoera bat. Bideberrietan 16 bik-tima, hildako ditugu, presoei bisitan joatean hilak. Herrira kartzelak eta erbestea husteko jaio zen. Horri garrantzi berezia eman behar zaio. Nolabait, herriaren eta kartzelaren eta erbestearen arteko zilborra moztu nahi izan zuten. Horren atzetik dabilta. Ez dute lortu. Herri honek kontzientzia kolektibo bat du non gauza horiei beti aurre egin dien. Kartzelan eta erbestean hartzen dituen erabakiak beti babestu ditu. Hori Euskal Herriak garbi du. Egin da eta egiten segituko da.

Bilbora manifestatzera deitu duzue larunbatean. Zergatik?

Gu Madrilera babes handiarekin joateko izanen da. Baina, nolabait esateko: bada garaia herri honek beste egoera batean bizitzeko badaukala esperantza, eta betebeharrak. Bake egoera egiazkoa bizitzeko garaia badela. Horretarako, gauza askoren artean, baina bat oso garrantzitsua izanen da presoen eta iheslarien etxeratzea nahi eta nahiez. Mezu horrekin Bilbora konbentziturik goaz. Itxaropena dugu jendea bilduko dugula, handia izanen dela. Autobusak antolatzen ari dira. Ea Bilboko karrika horiek topera betetzen ditugun beste behin ere, injustiziari ezezkua emateko eta herri honen nahiari baiezkoa emateko. Eta elkarri helduta aurrera egiteko nahia dugula. Ametsak betetzeko daude, eta iritsiko da egun hori, ametsa betetzen dena. Hori bai, borrokatu eta lan egin beharko dugu, bestela ez da betetzen. + www.guaixe.eus



Gurasoak gaur Nafarroako Parlamentuan izanen dira. Ez dago kontzentrazioirik.

"Leporatzen dieten delituen errudunak ez dira"

Altsasuko Auziko hirugarren epaiketa hartuko du Espainiako Auzitegi Gorenak asteazkenean.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Altsasu Gurasoak taldeko Amaia Amilibia Salgadorekin elkartu gara epaiaketaren aurretik gurasoen iritzia jaso asmoz.

Hirugarren epaiketa Madrilan. Kasik hiru urte?

Ez da urte bakoitzeko epaiketa bat izan, ez. Azken urtean-edo hirurak izaten ari dira. Ea zer gertatzen den oraingo honetan. **Espainiako Auzitegi Nazionaletik Gorenera pasa da auzia. Zer espero duzue gurasoek?**

Galdera horrek halako ezin ego-na eta mina sortzen digu. Orain arte ez dugu espero genuena izan; benetan aztertzea zer gertatu zen gau hartan, frogak aintzat hartzea eta horren arabera justizia izatea. Hori, orain arte ez dugu izan. Ikusiko dugu Gorenak, behingoan, Zigor Kodeak eta legeek esaten dutena aplikatzen duten edo orain arteko ildo politikotik abiatzen den. Ez dakit zer erantzun. Ikusiko dugu geroak zer dakarren. Espero dezagun zerbait ona izatea behingoan. Baina horren ziurtasunik ez daukagu.

Gurasoak eta auzipetuak epaietarako prestatu zarete?

Momentu honetan sentsazioa da tunel batetik pasatu behar dugula, tunel ilun batetik. Beldurra ematen duen tunel bat da hori, orain arteko esperientzia txarra izan delako.

Argirik ikusten ez delako?

Argia ikusten da, baina tunela eta gero. Orain arte argi gutxi izan dugu, itzal asko. Eta oraingo honetan tunel horretatik pa-

satu behar dugun horretan ere iluntasuna badago, nahiz argia ere. Hau da, gure seme-alaben sententzia oraindik irmoa izan gabe kartzelan daude, preso prebentibo. Gorenaren epaia irmoa izanen da. Hori etortzen denean, nahiz eta beldurra eman zer etorriko ote den, tira, bere alde ona ere izanen du. Horrek beste etapa bat ekarriko du. Prozesuaren bukaerarako bidean eman beharreko beste pauso bat. Ekar ditzake baimenak, erabaki berriak eta auskalo zer.

Auzipetutako hiruk Gara egunkariari emandako elkarrizketan zioten asteazkenekoa "azken bataila" dela.

Horixe. Hain zuzen ere aipatzen dugun irmotasunarengatik. Orain arte prebentibo daude. Baina Altsasukoen kasuan, prebentibo izanda ere, eta epai irmorik gabe, espetxeratu dituzte. Beste kasuetan ez da horrela jokutzen. Kasu honetan modu gogorrean eta zigor gogorrenarekin ari baitira, aritu direlako orain arte behintzat. 18an jokatu dena partida inportante bat da, bai. Espainiako azken aurreko finala dela esan dezakegu. Zeren finala Espainiako Konstituzio Epaitegia litzateke.

Eta luzatzen bada, hortik Europara.

Hori da. Baina orain arte ez da frogan arabera bete, hori nahi genuke. Zigorrak eta ordainak mila aldiz biderkatuta aplikatu dituzte. Behingoan hori bideratzea nahi genuke, benetan gertatu zenaren arabera. Esaten **Hurrengo orrian jarraipena**

dena Zigor Kode arrunta aplikatuta izatea, ez halako gauza arraroak eta zigortzaileak.

Gorrito astungarria eta bestelakoak, ezta?

Horixe. Eta terrorismo delitua. Hasieran nabari-nabaria zen ez zela terrorismoa. Inork ez zuen hori sinisten. Baina pasara eta eginarazi digutena, ba, min handia da. Gainera, ondorio kaltegarri asko ekarri dituena. Argi eta garbi gelditu da gure seme-alabek ez zutela inoiz terrorismoagatik epaituak izan behar. Espainiako Auzitegi Nazionalan bitan argi gelditu da terrorismo deliturik ez zegoela. Baina, aurretik, 2017ko martxoaren 23an, Nafarroako Lurralde Auzitegiak gauza bera esan zuen. Urtebete lehenago. Esan zuen Altsasun gau hartan gertatutakoa uste-gabeko gauza bat izan zela eta terrorismo zantzurik ez zegoela.

Asteazkenean gurasok Madrilgo bidea hartuko duzue?

Nik uste dut gehienak joanen garela. Aurpegia emanen dugu beste behin. Han egonen gara, eta han ikusiko gaituzte.

Auzipetuak ez dira han egonen, ezta?

Ez. Eta uste dut kasu honetan ez dutela ezta bideokonferentziaz ikusteko aukerarik izanen ere. **Nola daude zortzi auzipetuak?** Imajinatzen dut denetarik bizitzeko gauak eta egunak ditugula aurreko hauek. Alde batetik, urduritasuna. Lasaitasuna, bestetik, leporatzen dieten delituen errudunak ez direlako. Horrek ere bakea ematen du. Baina haien egoera ere ez da xamurra. Kezka ere izanen dutela pentsatzen dut. **Zazpi presoak elkarrekin egoteak lagunduko die, ezta?**

Nik pentsatzen dut halako talde bat dela barruan eta horrek elkarri babes handia ematen diela. Horri esker familiatxo bat ere badira. Uste dut hori oso mezegarria dela denendako.



"Prozeduran hainbat eskubide urratu dira"

JAIONE CARRERA ZIRIZA ABOKATUA

Altsasuko Auzia hala gertatu dela uste du Carrerak eta Espainiako Auzitegi Gorenean asteazkenean izanen den bistan bere defendatuen absoluzioa eskatuko du.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Gorenera kasazio helegiteekin iritsi zarete. Zer da hori?

Terrorismo akusazioak markatu izan du Espainiako Auzitegi Nazionalak epaitzea. Horrek ere markatu du gure defendatuen dako izan diren zigor handiak. Espainiako Auzitegi Nazionalan, azkenean, terrorismo akusazioa bertan behera gelditu da, baina beraiek izan dira zigorra markatu dutenak. Horrek 2 eta 13 urte bitarteko espetxe zigorak ahalbidetu ditu. Noski, gu ez gaude halako zigorrekin batere ados. Uste dugu prozedura honetan hainbat eskubide urratuak izan direla. Horren defentsan, sententzia horren kontra ere ariko gara. Hasieran, apelazioan aritu ginen, lehen epaiaren kontra. Ondorengo sententzia orain Gorenera, kasazio helegitearekin. **Abokatuek zer eskatuko duzue?**

Absoluzioa. Eta horrek haien askatasuna ekarriko luke. Benera ez da prozesu justu bat izan. Guk hori borrokatuko dugu. Ez dela behar den bermekin gauzatutako prozesu bat izan. Tarte horretan haien eskubideak urratuak izan direla, beraien errugabetasun eskubidea ere. Hori ere defendatu nahi dugu, zeharka bada ere, zeren Gorenak beste prozedura bat markatzen digu horretarako. Lehenik eta behin absoluzioa. Baina, gerora, hori ez bada, zigor arinago batzuk ere defendatuko ditugu, noski.

Eta fiskaltzak?

Beraiek eskatzen dute egun dagoen zigorra mantentzea. Ezin dute harago jo. Ez dute helegitearik tartekatu horretarako eta terrorismo akusazio hori aurrera egiteko. Egun dituzten zigor gogor horiek mantentzea hori da eskatzen dutena.

Nolakoa izanen da epaiketa hori? Hainbat saio izanen ditu?

Egun bateko kontua izanen da. Epaiketa baino bista bat da. Kasu honetan ez da frogarik prakti-



Aratzek, Iñakik, Jon Anderrek eta Julenek 500 egun preso egin dituzte gaur. Besteek 1039.

ASTEAZKENEKO GOIZEKO KONTUA IZANEN DA ETA EPAIA EZAGUTZEA EZ DU LUZE JOKO

katuko. Espainiako Auzitegi Gorenean egiten den prozedura hau gehien-gehiena idatziz arduratuta dago. Alde bakoitzak badu aukera helegitea tartekatzeko eta idatziz bere argudio guztiak aurkezteko. Ondoren ematen zaio beste aldeari, inpnatatu nahi duten edo ez aztertze-ko. Horren kontra egiteko aukera dute, idatziz. Berriz ere defentsei ematen zaigu, inpnazio horren kontra idatziz alegazioak egin ahal izateko. Ondorioz, asteazkenean egingen dena da ahoz defendatu jada idatziz aurreratutako hori. Eta, tarte honetan, gure idatziak aurkeztu genituenetik egundaino egon bada nobedaderik, garapenik, jurisprudentzian beste aurrekaririk izan bada, hori azpimarratzeko eta nabarmentzeko. Baina goiz bateko kontua izanen da. Aurrena, helegiteak tartekatu ditugunok

gure esposizioak egingen ditugu. Defentsa bakoitzak tartetxo bat izanen du hori garatzeko eta azpimarratzeko garrantzitsuen jotzen dituen gai horiek. Gero akusazioei tartea ematen zaie euren inpnazioa defendatzeko. **Gorrito astungarria nabarmendu zenuten aurreko epaiketaren aurretik. Gakoa da, ezta?**

Bai. Horrek ahalbideratu du zigor horiek bere gradu gorenean. Zigor Kodeak ahalbideratzen ditu zigor batzuk tarte batean, txikitik handira. Espainiako Auzitegi Nazionalak gorenera jo zuen, ahal zuen guztia. Horretarako astungarri hori baliatuz. Eta guk uste dugu astungarri horiek inondik inora ez direla aplikagarriak kasu honetan. Ahalbideratu nahi dute gorrito astungarria aplikatzea esanez guardia civilak, edo kolektibo hori, kolektibo berezitu eta kalte bat balitz moduan. Hori jurisprudentziak argiki baztertu du. Europan ere argi ikusi da gorrito astungarria ezin dela halako kasuetan erabili. **Epaitegiak astungarria kontuan izanez gero, Altsasuko auziaz aparte eragina izanen luke? Jurisprudentzia ezarriko litzateke?**

Bai. Hori beste beldurretako bat da. Halako aitzakia-pean, eta kasu honek izan duen hedabide- eta politika-oihartzunaren eta presioaren ondorioz, saiatzeari bide hori zabaltzen eta ondoren, interesatzen zaien heinean, horrelako astungarria erabiltzea bereziki zigortzeko kasu zehatz batzuk. Eta erabiltzeko zigor bidean esaten dena: etsaiaren kontrako zuzenbidea aplikatzeko, zigor gorrekin.

Bistara bueltatuz, auzipetuak presente izan behar dute?

Ez, ez dituzte horrelako bistetara eraman behar. Kasu honetan, gainera, Zaballako espetxetik Madrilera traslado bat egin beharra suposatuko luke. Horrek eragiten dituen kalte guztiarekin. Eta familiendako kalteak ere. Halako zerbait saihestu da. Bista goiz bateko kontua izanen da. Bertan egonen gara, bai defentsak, bai akusazioak, bai publiko gisa senide batzuk. Akusatuak ebazpenaren berri jasoko dute. Guk bistaren nondik norakoan berri emanen diegu ere.

Auzia bideokonferentzia bidez segitzeko aukera izanen dute?

Ez. Bista oso gauza xumea da eta, normalean, ez dira halako baliabide teknikorik erabiltzen. **Epaia noiz emanen duten jakiterik badago?** Epailiek hobesten dutenean. Gure ustez ez du luze joko.

Auzipetuek esana dutenez, asteazkenekoa "azken bataila da, ematen duen epaia bete beharko dugulako". Hala da?

Bataila garrantzitsua. Ez dakit azkena, zeren egia da kontrako helegiteak tartekatzerik badagoela. Baina funtsezko epaia izanen da. Irmotasuna hartuko du zigor hori betetzen hasiko direlako.

Okerrenera jarrita helegiteak tartekatzeko aukera legoke.

Epaia irmoa litzateke eta beraiek lirateke, kasurik okerrenean, zigortutako presoak. Ondorioz, bide-penitentziarioari aurre egin beharko litzaioke. Baina, paraleloki, epaiaren kontrako beste helegite batzuk tartekatu daitezke. Aurrena, Espainiako Konstituzio Epaitegian babes-errekurtsioa. Gero Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Epaitegi- ra jo ahalko litzateke. Baina ikusten duguna da bide horiek oso prozedura luzeak direla, urte askotakoak. Ordurako kaltea oso oso larria izan daiteke.

Osorik: www.guaixe.eus



ASTEKOA

RAF ATXURI

Azken beroen abaroan

Irail hasierarekin bat, Ziordiko eta Altsasuko festekin batera dator udara nekatuaren azken ibilia. Geure armairuetan arakatzeko eta biltegiratze lanetan ematen ditugu tarte xumeak, joandako udararen omenez eta laster irriz heldu den udazken lanpetuari ongi etorri epela eskainiko diogu jantzi-hautaketan, udatiar oroitzapenak nonbait gordez.

Irailleko eguzkia urruntzen eta bere bidean apaltzen doa, arratsak distira eta ñabarra hartzen doazen heinean. Sarri datoz basoetako mota guztietako gorrailak eta urrekarak, Lizarrustiko gerri buelta guztiak hosto eta orbelez edertzen, Urbasa-Andiako bazterrak pinpirintzen, Aralarko magalak zorakartzen. Gogo ibiltariak atsedean eta poz bare bat hartzen du uda azkentzen doan sasoi honetan.

Eguzkia apaltzen eta indarra ttipitzen. Ez da hala fortunatu, ordea, Lapurdiko kostaldean. Euskal Herriak bere xumean eta kokkorrean, badu toki bat, *handitasun* batean, Frantziako Errepublikan, hain zuzen, eta *grandeur* horren parte da.

Haiek hala, aurtengoan Miarritzen hartu dute ostatu eta plazerra *zazpi handien handiek*. G7 delakoak, Gerra Hotzaren kume kankailu eta harro horrek. Handi, handiki, hantuste, handitu edo handi-mandien zazpikotea Miarritzeraino surfeatu da. Hala, Hotel de Palais eta Kasinoan ukan ditugu handiok munduko *handienenak* eta besteenak konpontzen eta apaintzen. Irun-Ficoba-Hendaian, alta, bestelako mundu bat itxuratzen jardun ziren lurraren eta auzoaren aldeko bolondresak, ahalegina, irudimena, gogoeta, elkarlana eta engaiamendua tresnatzat, horra mundua aldatzeko bide orria.

Handikien *attrezzo* gisa, Ezpeletako piperrak, Arnaga, espartinak, Pierre Oteizaren urdaiazpikoak eta Oldarra abesbatzaren ahaireak. Agian mademoiselle Macron Baionako Kantuz-en ikusiko dugu hurrena.

Itzuli on!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00 baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Ikasturte hasiera

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Iraila iritsi da eta honekin batera ikasturte hasiera. Batzuek urte hasiera izango balitz bezala bizitzen dute. Nahiz eta haurrik ez izan guztiongan eragina dauka. Iraila hilabeteak baditu bere alde onak eta bere alde txarrak.

Txarrak, egunerokotasunean murgiltzea kostatzen zaigu, ordutegi aldaketa, eguneroko betebeharrak eta udari agur esan beharra... Honek guztiak pertsonarengan bi eragin nabarmen ditu: psikologikoak eta fisikoak. Fisikoki ditugun eraginak; nekea, kilo batenbat hartu izana... eta psikologikoki

ditugun eraginak, esaterako, errutinara itzultzea, antsietatea, estresa... izan daitezke.

Ondorio hauei guztiei aurre egitea ez da lan erraza izaten, denbora behar da berriz “martxan” jartzeko. Aldaketa garaia denontzat egoera estresantea izaten da, egunerokotasunaren erritmoa denborarekin berreskuratzen baita, eta honetarako egokia litzateke helburuak finkatzea, atsedean orduak berrantolatzea... Guraso direnen kasuan familia bateratzea da une estresanteetako bat, lan arloa eta familia arloa bateratu eta antolatzea ez baita lan erraza izaten, horrek dakarren estres maila dela eta.

Irailak baditu bere gauza onak ere; motibazioz hartu

daitekeen bizitzako etapa berri bat hasten da, bai eskolan, bai lanean edo pertsonalki. Erronka ezberdinak finkatzen dira arlo ezberdinetan oinarrituta; osasunean, hezkuntzan, lanean edota pertsonalean. Errazagoa da egoera edota etapa berri bati aurre egitea motibazio puntu batekin, denborarekin ondorio positiboak dakartzalako gure bizitzan.

Gizakiok edozein egoerataraz moldatzeko gaitasuna dugu; batzuek denbora gehiago behar dute eta beste batzuek aldiz gutxiago. Argi izan behar duguna da aurrera jarraitzeko esfortzu bat egin behar dugula egoera berri batera moldatzeko eta lortu nahi ditugun helburuak eskuratzeko.



OBJEKTIBOTIK

Altsasu interes handiko turismo puntua

Udako egunetan Altsasuko kaleetatik espezie berri bat ikusi ahal izan dugu: turista militantea.

Mobila eskuan, edozein lelo duen kamiseta soinean eta eraikuntza historikoei baino kartel edo margoketei begira doan espeziea.

Oso ezaguna egin da mundu guztian Altsasuko auzia, eta hemendik pasatzen den turista militanteak ezin du aukera galdu kartzelan daramaten panelarekin argazkia ateratzeko. Sare sozialak eta mezularitza zerbitzuak kontagailuaren argazkiz bete dira, influencer-en moduan.



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Iñe Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Naufagoak dira euskara ikastera animatzeko kanpainako protagonistak.

Ez galdu euskara ikasteko aukera, orain da garaia!

Euskaltegietan izena emateko epea zabalik dago. Ikasleek Mankomunitatearen diru-laguntza jasoko dute

SAKANA

Ez dago aukera galdurik. Ez horixe. Horregatik, orain da garaia euskaltegirako bidea hartu, atea zabaldu eta izena emateko. Jakina, telefonoz ere egin daiteke. Ez baitago aukera galdurik euskara ikasten hasteko edo hasitako ikasketak despeditzeko. Euskara gozatzeko dela nabarmendu dute euskaltegietatik. "Euskaltegia ikasteko ingurune atsegina da, eta kontuan hartzen ditu adin guztietako helduen ezaugarriak eta beharrak". Eta euskara irakasleek azpimarratu dutenez, "ikasketa aktiboan oinarritutako metodologiak erabiltzen ditu, komunikazio gaitasun praktikoak barneratzeko".

Helduak eta, bereziki, gazteak funtsezkoak dira euskarak bizirik irauteko. Izan ere, helduek motibazio, kontzientzia eta ilusio handia izaten dute euskara barneratzeko eta erabiltzeko, azken

batean, aukera anitz ematen dielako hizkuntza komunitate dinamiko batean sartzeko.

Hirugarren urtez, Nafarroako Gobernuak 32 toki erakunderekin, Sakanako Mankomunitatea barne, eta Nafarroako euskaltegiekin batera, kanpaina egin du, euskaltegietan matrikulazioa sustatzeko.

Sakanako eskaintzaren berri izateko AEKrengana jo daiteke: 948 468 258 telefonora hots eginez, sakana@ae.euse e-postara idatziz edo Itsasi euskaltegitik pasaz (Altsasuko Gartzia Ximenez kaleko 46. zenbakia). Kanpainako antolatzaile guztiek gogorarazi dute euskara ikasten dutenek diru-laguntzak eskatzeko aukera dutela. Horren berri Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan emanen dizkizute, 948 464 840 telefonoan edo euskara@sakana-mank.com e-posta helbidetan.



Olatzagutiko araztegia. NILSA

Ur araztegia berritu eta handitu egingen du Nilsak

Berrikuntza integrala izanen da eta lanetarako urtebete aurreikusi da. Araztegiaren gaitasuna handituko da

OLATZAGUTIA

Olatzagutiko etxeetako eta industrialdeetako ur zikinak 1991z geroztik ez dira zuzenean ibaira joaten. Ordutik dago martxan araztegia. 28 urteren ondoren instalazioa bere ahalmena gainditzetik gertu dago. Gaitasun premia horietara egokitzeko Nilsa enpresa publikoak Olatzagutiko araztegiaren berritze integrala egingen duela jakinarazi du. Ondorioz, egungoaren ondoan azpiegitura handitu egingen da. Araztegi berria funtzionatzen hasi ondoren, zaharra bota eta haren tokian baltsa bat egingen da. Hondakin-uraren tratamenduaren akaberako elementu bat izanen da baltsa; izan ere, han egonen da araztutako ura denbora batez Arakil ibaira bueltatu aurretik.

Nilsatik jakinarazi dutenez lanek urtebete iraunen dute, eta, bitartean, instalazio zaharrak

jarraituko du lanean. Lanek 2.058.728,64 euro (BEZ gabe) aurrekontua dute eta Nafarroako zergadun guztiek uraren ordainagiriaren bidez ordaintzen duten saneamendu-kanonaren kontura finantzatu da. Nilsatik azaldu dutenez, araztegi berriak ur zikinen 15,63 litro segundoko emaria tratatu ahaliko du batz bestea, hau da, 1.350 metro kubiko eguneko. Gehieneko emaria, bestetik, 46,90 litro segundoko izango da. Mantentze-lanei dagokienez, astean bitan joango dira langileak instalazioa aztertzeraz, eta gutxienez bi ordu iraungo du bisita bakoitzak. Helburua da egiaztatzea uraren kalitate-parametroak egokiak direla eta isurketen inguruko arau eta baimen guztiak betetzen direla.

Aurretik bitan berritu da Olatzagutiko araztegia. Aurrena, 2005ean eta, atzena, 2015ean.



Ogitartekotearen banaketa.

Jendea bapo dendari elkartearen 25 urteurrenean

ALTSASU

Altsasuko Dendarien Elkartek (ADE) 25 urte bete dituela eta ospakizun handia prestatu zuen larunbaterako. Foru plazan taberna eta terraza zabaldu zuten 18:00etan eta 23:00ak arte musika eskaintza zabala entzungai izan zen bi dj-ren eskutik. Haurrendako jarduerekin batera, Iskiza klubaren gimnasia erritmiko eta Oihuarima dantza taldearen ikuskizunak, eta Zangitu fanfarearen emanaldia izan zen.

Horrekin batera, aurten jubilatu diren eta harategia itxi duten Juanjo Aldasorori eta Jose Galani omenaldia egin zieten, Altsasuri eskainitako konpromisozko bizitzagatik. ADEren izenean Amaia Bengoetxeak oroigarria eman zien. Bikotea ADE-ko kidea zen, baita haren aurreko Zurekin dendari elkartekoa ere. 60 metroko bokadilloa banatu zuten ere.

GOIZERO 10:00-12:00

EGUN ON SAKANA

08:30 Nafarroako albisteak
Euskalerria irratia eskutik

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneko albisteak

10:45 Hizketan

11:20 Sarea: Aralar eta
Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

ZURE NEGOZIOAREN
ERAKUSLEIHOA,
BELEIXE IRRATIA. JARRI
HARREMANETAN GUREKIN!

948 567 074
irratia@beleixe.eus

BIZI JAIK BERDINTASUNEAN



LARRIALDIK



Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

INFORMAZIOA

016 ATENCIÓN A VÍCTIMAS DE
MALOS TRATOS POR VIOLENCIA DE GÉNERO



Azokako antolatzaileek laborantza iraunkorraren alde egiteko eskatu diete sakandarrei eta erakundeei.

Hausnarketarako azoka Irurtzunen prestatutakoa

Igandean, 09:00etatik 14:30era, VII. Irurtzuno eta Arakilgo Bertako Ganadu Azoka izanen da. Belardi elkarteak: “pentsatzen dugu gizarte bat dela ekoizten duena eta jaten duena. Ekoizpen jasangarria duen gizarte bat gizarte jasangarria izanen da”

IRURTZUN

Azoka honen xedea da nekazaritza eta abeltzaintza eredu jasangarri bat aldarrikatzea. Eta Sakanako ekoizleak elkartzen dituen Belardi elkarteko Aritz Ganboa de Migelek azaldu digunez, “eredu jasangarri hori ordezkatzeko duten ustiategiak gure plazan aurkezte” ere. “Ustiategi horiek, bai landare bai abere, bertako arraza batzuei lotuta daude. Nekazaritza edo abeltzaintza arraza horiek gure paisaien mantenu lanetan ibiltzen dira gure natur gunean”.

Belardikoek azokaren bidez “uztatu” nahi dituzte “batetik, gure bertako arrazak. Gure paisaia, gure natur-ondarea, gure

kultur-ondarea. Eta, bestetik, ekoizleak. Gure gastronomia-ondareaz eta gure elikaduraz arduratzeko direnak. Horiek gara aurkeztuko ditugunak gure produktuek azokan. Horregatik esaten diogu azoka gardena, produktuen atzean dagoena produktuen ekoizlea delako”.

Senidetzea

Belardiko eta EHNE-Bizilurrekoekin batera Idokiko bi ekoizle Irurtzunen izanen dira. Idoki Ipar Euskal Herrian laborantza iraunkorra sustatzen duen elkarte da. Haien bi postuetan esnekiak, arto-irinez egindako pastelak eta Ezpeletako piperrak izanen dira eskuragai.

Ganboak gaztigatu digunez, “hau ez da kasualitatez izanen. Euskal Herriko Laborantza Ganberak Miarritzen antolatutako Lurruma azokan Nafarroa gonbidatua izanen da (azaroak 8-10). Hura Irurtzun-Arakilen ordezkatzeko dugun ereduarekin erabat lotuta dago. Idokikoek euren mozkinak eta Lurruma azoka ere aurkeztuko dute”.

Ganboak sakandarrei deialdia egin die azaroko Lurruma azokara joateko. “Nafarroa gonbidatua izanen da. Gastronomia-ordezkaritza eta ekoizleena han izanen da. EHNE Bizilur izanen da kudeaketa eginen duena eta han Belardiren produktuek ere izanen dira. Igandekoa azaroko

azoka horretarako aurreneko gerturatzeko izanen da”. Gaineratu duenez, “Iparraldeko bi ekoizleak Irurtzun-Arakilgo azokan egoteak Idokiren, Belardiren eta EHNE-Bizilurren arteko senidetzea suposatzen du. Guretako, Sakanako eta Nafarroako, Idoki beti erreferentzia bat da”.

Lurruma azoka klima aldaketaren inguruan izanen dela aurreratu digu Ganboak (klima bizia da leloa du). Irurtzuno azoka ere horri lotuta izanen da aurtengoan. “Klima aldaketarena arazo garrantzitsua bihurtu da. Nazioartean eta Euskal Herrian agenda politikoan lehen postuetan dagoen arazoetarikoa bat dela baliatuz, horren inguruko hausnarketa egin nahi dugu”. Belardikoek azpimarratu nahi dute klima-aldaketaren aurrean nekazaritza eta abeltzaintza eredu jasangarriak tresna egokienak dira. “Gure bioaniztasuna zaintzen dutelako eta gure natur-ondare horrek aurre egiten diolako klima-aldaketak ekartzen dituen ondorio larriak. Abeltzaintza estentsiboak karbono aztarra finkatzen laguntzen du. Gure bioaniztasunaren aberastasun hori gure animaliek, hau da, azokan aurkituko ditugun animaliei erabat lotuta dagoela”.

Horregatik, “klima aldaketa ekiditeko nekazaritza eredu jasangarriak, bertako nekazaritza ereduak, bertako kontsumo ereduak dira tresna hoberena”. Izan ere, berriki ezagutu den datu baten arabera pertsona baten berotegi-efektuko gasen % 37,5 elikadura motaren ondorioa da. “Batez ere, dieta hau osatzen duten elikagaiak urrunetik ekartzen direlako eta hauek ekoizteko ereduak orokorrean kutsakorak eta baliabide xahutzaileak direlako”.

Denetarik opa daiteke azokan

Bertako arrazen erakusketarekin batera, ekoizleen eta artisauen salmahaiak izanen dira azokan. Baina gehiago ere: garai bateko nekazaritzako lanabesen erakusketa, mitologia-pertsonaiak, joaldunak, trikitilariak eta gaitariak kaleak animatuko dituzte, taloak, turismo informazioa, haurrendako buztingintza tailerra eta jokoak ere izanen dira.

Gazta lehiaketa

III. Gazta Herri-Lehiaketa jokatu da. Nafarroako Mendialdeko gazta keatuek eta naturalek parte hartuko dute. Lehiaketara aurkeztu diren gazte ardi latxaren edo bertako ardi arrazen esnez eginak izan behar dute. Artzainek beraiek egindako gaztak izan behar dute. Epaimahaia herritarrak izanen dira. Informazio gunean txartel bat hartuz gazta dastaketan parte hartzeko aukera izanen da, 12:00etan. Sakanako landetxetara etortzen direnek dastaketan parte hartzeko gonbidapena izanen dute. Ondoren botoa emanen dute. Puntu gehien dituen gaztaren egilearendako izanen da txapela. Hiru sari banatuko dira, Brun forjan eginiko oroigarriekin batera. Sariak 14:00etan banatuko dira.

SAKANA
Itsasi AEK euskaltegia

Izena emateko azken eguna: irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, behea
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.eus

DIRULAGUNTZAK
Sakanako Mank: BEKAK

Zu hemen zaude,
AEK ere bai

EUSKARA-IKASTAROAK

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.

948 468 037 Arbizu
948 468 411 Altsasu

**Auto berri eta
bigarren eskukoak**
SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Bazkaria eta aizkolariak

Kontsumo eredu zuzeneko ereduaren parte hartzeko deia egin zuen Ganboak. Gainera, “azokaren filosofiarekin koherentea” den jardura antolatu dute, herri bazkaria. Belardi elkarteko ekoizleek mandarrak ere jantziko dituzte igandean. Bertako produktuekin egindako paella prestatuko dute herri bazkarirako. Barazkigunean, 15:00etan izanen da. Ehun pertsonarendako prestatuko dute jatekoa. Bazkaltzen gelditu nahi duenak igandean bertan txartelak 15 eurotan erosteko aukera izanen du. Horiek azokako informazio gunean, turismo-informazio gunea ere baden horretan eros daitezke. Azoka ixteko Euskal Herriko III. mailako Aizkolari Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu da. Foru plazan izanen da, 18:00etan.



Aitor Larraza Carrera. UTZITAKOA

Irurtzun Plazaola turismo partzuergoan

Aitor Larraza Carrera Irurtzongo alkatea da partzuergoko lehendakari berria

Munia El Marhoun IRURTZUN / ARAKIL Irurtzongo Udalak garilean onartu ondoren, Plazaola turismo partzuergoaren bazkide da, agorrilaren 8ko osoko batzarrean onartua izan eta gero. Araizko udalaren ondoren, partzuergo batatu den azken udala izan da. Osotara 8 udal daude, beraz, gaur egun partzuergoan: Araitz, Arakil, Areso, Imotz, Irurtzun, Larraun, Leitza eta Lekunberri. Gainera, 95 bazkide pribatu ere badaude partzuergoaren barruan.

Agorrilaren 8an, partzuergoko bazkideek lehendakari hautatu zuten Irurtzongo alkatea den Aitor Larraza Carrera. Larrazak partzuergoaren ibilbidea gorai patu zuen, haren 25. urteurrenean. Partzuergoaren mugarrak aipatu zituen: Plazaola bide berdea, Ederbidea, Eurovelo 1 eta Nafarroako Gobernuarekin lantzen ari diren hainbat proiektu gorai patu zituen. "Partzuergo aparteko erreferentzia bihurtu dela" nabarmendu zuen, bai Nafarroan bai kanpoan.

Sinergiak sortzeko beharra, eta gainontzeko sektoreekin lan egiteko aukerak ere aipatu zituen, lurralde osoaren garrantzia nabarmenduz. "Arduraz eta ilusioz, eta eskuak zabalik" egonen direla, bidelagun berri eta ekarpenak jasotzeko. **+guaixe.eus**

Apoyos Metalicoseko langileak kalean

Enpresa itxita dago dagoeneko eta 73 langileak etxean daude. Lantegia bi astetan hutsik geldituko da eta ekoizpena Avilesa eramanen dute. Langileek enpresaren deslokalizazioa salatu eta Gamesaren eta gobernuaren jarrerarekin kexu daude.

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

Apoyos Metalicoseko zuzendaritzak Enpresa Batzordeari lantegia itxteagatik eman beharreko kalte-ordainak proposatu zizkien herenegun: 55 urte beteta dituzten 5 langileri lan egindako urte bakoitzeko 27 eguneko ordainketa eta 6.000 euroko kalte-ordaina, gainontzekoendako 27 egun eta 1.000 euro. Langile batek onartu du Avilesera joatea. Han ezartzeko 6.000 euro jasoko ditu. Urte baten buruan han gustura ez badago eta Nafarroara bultzatzen bada 24 eguneko kalte-ordaina jasoko luke.

Langileen batzarrak eskaintza onartzea erabaki zuen. Aldeko



Langileek deituta manifestazioa egin zen Altsasun larunbatean.

50 boto izan ziren, kontrako 6 eta 2 abstentzio. Astearte arratsaldeaz geroztik langileak etxean dira ordaindutako lizentziarekin, asteartera arte. Orduan etengo ditu enpresak kontratuak. Enpresa Batzordeko kide Alfredo Berasategik esan digunez, "zuzendaritzak esan zigun kalte-ordainetarako hiru milioi euro zituela, eta batean jarri bestean kendu ibili da".

Berasategik aitortu digunez, "itxiera erabakiak sindikatuoi aho-zapora garratza utzi digu. Ez da gustukoa izan". Lantegiko industria jarduera mantendu eta horrela lanpostuei eusteko langileek Gamesarekin eta Nafarroako Gobernuarekin azken bi hilabeteetan egindako ahaleginak alferrik izan dira. Batzordeko buru Sergio Goñik "Nafarroako Gobernuaren zehaztasun faltaz" kexu da, "zenbait bileren ondoren industria bazkide bat ekarri eta etorkizuna duen industria-proiektu bat bermatzeko gai ez da izan". Kexu dira ere lantegiaren jabe den Daniel Alonso taldeak lan erreformak baliatu dituela, horiek "langileak defentsarik gabe uzten baitituzte".

Haize-sektorea, atzerako begirada

Haizeari lotutako industria sektorearen Nafarroako historia ibarrean hasi zela esan liteke. Energia Hidroelctrica de Navarra (EHN) enpresa publiko-pribatua herrialdean energia berriztagarriak sustatzeko sortu zen. Bere haize-programa garatzeko industria azpiegitura behar zuen eta horrela sortu zen Gamesa Eolica, Juan Cruz Aliik 1994ko lastailaren 6an mustu zuena. Han bat egin zuten Gamesak (% 51), Danimarkako Vestasek (% 40) eta Sodenak (% 9).

Nafarroako haize-industriako aurreneko sei haize-errotak Erreniegako mendizerran jarri zituzten eta haien hegala 1994ko abenduaren 18an hasi ziren biraka. Altsasuko Pinhor enpresak egin zituen haize-errota horien dorreak Comayderekin elkarlanean. Dorre bakoitzak 40 metroko altuera du eta 500 kw-eko potentzia.

Gamesa Eolicak Nafarroan hiru lantegi eginen zituela jakinarazi



Sakana kooperatiban egindako piezak. ARTXIBOA

zuen 1995eko apirila hasieran. Bat Altsasuko Fiberblade izanen zen, bestea Olatzagutiko Apoyos Metalicos. Altsasuko enpresa Gamesa Eolicarena zen % 100ean eta haize-erroten 30 metro arteko luzerako hegala eginen zituen. 550 milioi pezetako inbertsioa egin zen. Haietatik 150 milioi 40 langile compositearen erabileran trebatzeko bideratu ziren. 1996ko martxoaren 9an hasi ziren lanean aurreneko 15 langileak eta 150 izatera iritsi

zen. 2010eko maiatzaren 17 izan zen azken lan eguna. Gamesak itxia erabaki zuen haize-errotendako hegal handiagoak egiteko espaziorik ez zegoelako. Tamaina kontua, beraz, Apoyos Metalicosen kasuan bezala.

Olatzagutiko enpresa Gamesa Eolicaren (% 80) eta Comayderen (% 20) artean eratu zuten. 450 milioi pezetako inbertsioa egin zuten. Hasierako aurreikuspenak ziren 30 langilerekin 60 metro arteko haize-erroten dorreak egiten hastea eta 55 langiletara

iristea. 1995eko garagarriaren 30erako martxan nahi zuten lantegia. Orain atek itxiko dituen lantegian lan istripuan langile bat hil zen 2008an.

Haize-erroten dorreak egiteko lantegi berria eginen zela eta Pinhor enpresak eta Gamesak akordioa lortu zuten: 20 bat dorre egin eta bestelako lanak ere emanen zizkion.

Sakanako beste enpresa batzuk sartu dira sektorean. 2012ko irailaren 11n sei enpresa nafarrek Navarra Wind Energy Consortia, Naweco, elkarrekin aurkeztu zuten, tartean: Uharteko Laneko (torloju bereziak), Lakuntzako Industrial Barranquesa (dorretarako altzairuzko aroak eta bridak) eta Altsasuko Jatorman (prozesuen automatizaziorako ingeniariak konponbideak). Lakuntzako Sakana kooperatiba ere aspalditik ari da sektorearendako piezak sortzen. Industrias Barga ere haize erroten barruko material hornitzailea da.

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

"Sarritan ez diegu gauzei duten balioa ematen. Txirrindularitza proba bat 90 ediziotan antolatzea handia da. Beste edozein tokitan halako izena duen afizionatuen mailako lasterketa bere herrian izateagatik borrokatuko ziren, eta gu ia konturatu gabe iritsi gara hona. Baina festetan jokatzeko den Altsasu Txirrindularitza Probak aurten 90 edizio beteko dituela ederki ospatuko dugu" azaldu zigun Sociedad Deportiva Alsasua edo Altsasu Kirol Elkarteko txirrindularitza ataleko arduradun Felix Mazkianek. Altsasuko Txirrindularitza Probako antolatzaileek gaur, ostira-lean, Altsasuko festen hasierako etxafigua edo suziria jaurtitzeko ohorea izanen dute.

Estatuko 2. proba beteranoena

Espainiako Vuelta baino beteranoagoa da Altsasukoa, Espainiar estatuko bigarren proba beteranoena, Irunen San Pedrotan jokatzeko denaren atzetik.

Espainiako Vueltako lehen edizioa 1935. urtean jokatu zen, eta igandean Vueltaren 74. edizioa despedituko da. Aldiz, eta nahiz eta Altsasun 1923rako txirrindularitza lasterketen inguruko datuak eta argazkiak egon, 1925ean antolatu zen lehendabiziko "Altsasuko Txirrindularitza Proba", izen horrekin. Gerrate Zibilean eta zenbait data konkretutan izan ezik, urtero ospatu da. "Irungo lasterketakoek diote eurenak 100 proba egin dituela, baina ez dakigu 100 edizio diren edo proba hasi zenetik 100 urte pasa diren. Horregatik, guk gurea Espainiako Estatuko 2. proba beteranoa dela esaten dugu" aipatu zuen Mazkianek.

Astelehenean Nafarroako Kirolaren Etxean aurkeztu zuten proba. Ekitaldian Altsasu Kirol Elkarteko ordezkariak zabala egon zen –Jones Fresneda presidentea, Felix Mazkian txirrindularitza ataleko burua eta Eugenia Rosa eta Miguel Angel Montesinos kideak, besteak beste–, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren zuzendari Miguel Pozueta, Altsasuko alkate Javier Ollo eta Miguel Indurain txirrindulari ohi handia.

Txirrindulari handiak

Urte hauetan guztietan puntako txirrindulariek hartu dute parte Altsasun. Hasierako urteetan Ignacio Orbaizeta, Juan Jose



Altsasun XX. mende hasieran jokaturako txirrindularitza lasterketa baten irteera, Zelai kalean. UTZITAKOA

Altsasuko proba: etzi 90. edizioa

Estatuko 2. txirrindularitza proba zaharrena dena igandean jokatu da. Probari aitortza eginez, Altsasu Kirol Elkarteko Felix Mazkian, Miguel Angel Montesinos eta Eliseo Gorospe antolatzaileek piztuko dute gaur Altsauko festen hasierako etxajua

Eizagirre, Santiago Gorriz, Lazariko, Jesus Loroño, Jacinto eta Jose Urrestarazu, Martin Jose Zelaia eta beste hainbatek parte hartu zuten, eta beranduago Txomin Perurena, Marino Lejarreta, Carlos Zelaia, Santi Crespo, Xabier Zandio, Paco Mancebo, Txente Garcia edo Alejandro Valverde bera aritu ziren, baita Miguel Indurain handia ere, nahiz eta berak oso ongi ez gogoratu, apenas urte bat egin baitzuen afizionatuetan. "Proba gogorraren fama zuen Altsasukoak, denboraldi bukaeran jokatzeko zelako" gogoratu zuen aurkezpenean Indurainek. Miguel Altsasun aritu izan zen, baina Pruden bere anaia izan zen 1990. urtean Altsasuko proba irabazi zuena. Alejandro Valverde (1999), Pablo Urtasun urdiaindarra (2001) eta Mikel Nieve (2007) daude ere irabazleen artean.

10 aldiz Altsasutik eta 5 Altamiratik

Afizionatuen mailako 90. Altsasu Txirrindularitza Proba (121,6 km) igandean goizeko 10:00etan abiatuko da Altsasu Kirol Elkartearen paretik. Aurten ere proba 10 aldiz pasako da herritik eta txirrindulariek 5 aldiz gainditu beharko dute Altamira portua, Altsasutik igo eta Olaztitik jaitsiz. Horretaz gain, hiru aldiz Urdiaindik San Pedroko bidea hartuko du probak Altsasura heltzeko, eta Altsasutik San Pedroko bidera aldi batez joango da, Urdiainera heltzeko.

90. urteurrena denez, proba Altsasuko Udalaren parean despedituko da, ordu bata inguruan. "Urdiaindik etorriko dira, Beheko Bentatik, eta zuzenean egingo dute gora, udaletxeraino. Sprint ikusgarria gerta daiteke" azaldu zuen Mazkianek. Proba oso

azkarra da Altsasukoa. "Tbilbidea aldatu zenetik azkarragoa da proba, eta tentsio gehiago dago. Erasoak daude, eta posizioa galdu nahi ez dutenek aurrean egon behar dute beti. Horretarako, oso azkar joan behar da eta oso gorreragaitzen da" gaineratu zuen.

Altsasukoa Euskaldun Torneo-rako puntuagarria den azken proba izanen da. Victor Etxeberria da liderra, baina oraindik torneoazabalik dago. Ohiko taldeez gain, CM BENROS talde kolonbiarrak, Kantabriako GOMUR taldeak, Madrilgo Estevez Chozas taldeak eta Errioxako talde batek hartuko dute parte. Hortaz, ikusmina handia da.

Kategoria txikikoak larunbatean

Kategoria txikikoek ere lasterketa izanen dute Altsasuko festetan. Larunbatean izanen da, goizeko 10:30etik aurrera.

Altsasu Probaren datu batzuk

- 1923tik txirrindularitza proben datuak daude, baina 1925ean ospatu zen lehenengo Altsasu Txirrindularitza Proba, izen horrekin. 1927an Altsasuko Udalak lasterketa herriko festen egutegian ospakizun garrantzitsu moduan sartu zuen. Ordutik gaur egunera arte horrela ospatu izan da, Gerrate Zibilean eta zenbait urte zehatzetan izan ezik.
- Hasieran Altsasuko Udalak babesten zuen proba eta herriko zaleengana jotzen zuen antolaketakarako. Bar Deportivo Olimpyan biltzen ziren proba prestatzera.
- 1940tik aurrera Bar Gabino izan zen proba antolatzeko gunea, bi hamarkada ingurutan. Paco Sayas, Rufino Larrea, Santiago Gorriz, Pedrito Zornoza... ziren antolatzaile nagusiak.
- 1960tik aurrera Ciclos Letona bizikleta tailerra izan zen antolatzaileen bilgune, Julian eta Esteban Letona anaiekin.
- 1968ko otsailaren 5ean Sociedad Deportiva Alsasua edo Altsasu Kirol Elkartea sortu zen, eta elkarteak probaren antolakuntza lanak hartu zituen bere gain, Eliseo Gorospe, Jesus Pereda eta hainbaten ardurapean.
- Antolakuntzan Angel Diaz San Emeterio, Luis Lopez Zornoza eta Miguel Angel Montesinos Zornoza sartu ziren eta probari bultzada handia eman zioten. Lasterketa Euskaldun Torneoan sartu zuten.
- Proba antolatzeko geroz eta diru publiko gutxiago zegoez, Altsasu Kirol Elkartek Altsasu Txirrindularitza Probaren antolakuntzaz gain, lasterketaren aurrekontu osoa eta babesletza hartu zituen bere gain.
- 2010eko edizioa ez zen ospatu, herriko kirol klub guztiek Altsasuko Udalarik egindako presio-neurri moduan, Udalak kirolari diru-laguntzak kentzeko izandako jarrera salatzeak.



Felix Mazkianan, Miguel Angel Montesinos eta Eliseo Gorospe, probaren aurtengo kartelarekin.

"Probari aitortza egin izanak asko pozten gaitu"

Altsasu Txirrindularitza Probako antolakuntzan belaunaldi ezberdinetan aritu diren Eliseo Gorospek, Miguel Angel Montesinosek eta Felix Mazkianan piztuko dute gaur festen hasierako suziria. Probari egindako errekonozimendua eskertzen dute hirurek

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasuko Txirrindularitza Probaren egungo arduradun Felix Mazkiananek adierazi zigunez, Javier Ollo alkateak eman zien berria. "Alkateak deitu ninduen udaletxetik pasatzeko eskatzeko, Zumalakarregi plazako obrak direla eta, txirrindularitza taldeen autoak aparkatzeko tokia zehazteko. Orduan aipatu zidan Geroa Bai taldeari zegokiola Altsasuko festen hasierako suziria piztea, baina ohore hori Altsasuko Txirrindularitza Probako antolakuntzari utziko ziotela, lasterketaren 90. edizioari aitortza egiteko. Halaber, suziria pizterakoan urte luze hauetan antolakuntzan aritu diren hiru belaunaldiren ordezkariak egotea nahi zuten, proba martxan jarri zutenak, proba mantendu dutenak eta egungo antolatzaileak".

Felix Mazkianan: "Ilusio handia"

Hasierako sortzaileengana heltzea ia ezinezkoa izan da, 1925 urte haietako inor ez baitago bizirik;

atzera egiten, Eliseo Gorospe zen beteranoetakoa. Beranduago Miguel Angel Montesinosek hartu zuen probaren ardura, eta duela 5 urtetik hona Felix Mazkianan da arduraduna. Eta aipatu hirurak izanen dira gaur, Altsasuko udaletxera jaietako suziria piztera igoko direnak.

"Sorpresaz eta ilusioz hartu genuen, batez ere probari errekonozimendua egiten zaiolako. Txirrindularitza proba batek 90 edizio betetzea handia da. Eta hura antolatzeke egiten den esfortzuari aitortza egiteak pozten gaitu. Ez duzu horretarako egiten, baina errekonozimenduak ilusioa eta indarra ematen dizu gauzak antolatzen jarraitzeko. Egindakoa baloratzen dela, finean. 90. edizioari aitortza egitea nahi zuten, proba martxan jarri zutenak, proba mantendu dutenak eta egungo antolatzaileak".

"ALTSASUKO PROBA PRESTIGIOTSUA ZEN. HASIERATIK SARTU ZUTEN EUSKALDUN TORNEOAN"

zioari ginda jartzen dio suziriaren jaurtiketak, eta suziria proba antolatzen laguntzen duten 100 boluntarioendako da. Bestalde, maila pertsonalean ere ilusio handia sortu zidan. Altsasuarrak naiz eta suziria piztea handia da" aitortu zuen Mazkiananek.

Iritzi berekoak dira Miguel Angel Montesinos eta Eliseo Gorospe. Azken honek 83 urte ditu, alarguna da, eta Aita Barandiaran egoitzan bizi da. Hirurekin elkartu ginen asteartean.

Eliseo Gorospe: "Txirrindulan milaka kilometro egina naiz"

Eliseo Gorospe Aramendik aipatu zuenez, Altsasun biziklaretarikiko zaletasun "handia" egon da betidanik. Bere lehen bizikleta heldua zela erosi zuen. "Aita 11 urtez egon zen espetxean; Gerrate Zibilean hartu zuten preso. Amarekin Burgoseko kartzelara joaten ginen bera ikuster. Etxean dirurik ez eta amak patata batzuk hartu eta saltzera joaten zen. Debekatua zegoenez,

estraperloa ote, ama ere preso sartu zuten 3 urtez. Orduan ez zegoen bizikletarik gurean" azaldu zigun. Txirrindularitza bere kirol gustukoena izan da betidanik. "Ormaiztegiko lantegi batean lan egiten nuen, margolaria nintzen. Eta askotan joan izan naiz Ormaiztegira bizikletan lanean. Ordutxo pasa kosta egiten zitzaidan" aitortu zigun.

Altsasuko Txirrindularitza Proba antolatzen urte mordoa eman zuen. "Altsasuko Kirol Elkartean geunden. Beranduago Luis Lopez Zornoza, Esteban eta Julian Letona, Angel Diaz San Emeterio, Miguel Angel Montesinos... sartu ziren. Txiki txikitatik gogoratzen dut lasterketa hau. Helmuga batzuetan San Juanen zegoen, beste batzuetan Larrea parean, udaletxe parean baita ere... Loroño, Soler, Luis Otaño eta halakoak ibiltzen ziren orduan, baina Miguel Indurain izan da nire idoloa" gaineratu zuen.

Miguel Angel Montesinos: "Altsasukoa proba oso garrantzitsua zen hasieratik"

Miguel Angel Montesinosek 73 urte bete zituen asteartean bertan. Aipatu zigunez, 40 urte inguru daramatza proba antolatzeke lanetan. "Hasieran Luis Lopez Zornoza lehengusuak zuen ardura eta gero nik hartu nuen, baina duela 5 urte Felix Mazkiananek hartu zuen batuta. Lasterketari aire berria eman dio, ibilbidea aldatu zuen herriatik gehiagotan pasatzeko eta guztiz asmatu zuen, goiz guztian zehar jendea lasterketari adi-adi dagoelako. Lehen Lizarragaraino joaten zen, gero buelta eta Altamiraraino... gutxitan ikusten genituen txirrindulariak pasatzen" zioen Montesinosek.

Altsasuko proba betidanik "oso garrantzitsua" izan dela gaineratu zuen. "Federazioak egonkortu zirenean, hasieratik Euskaldun Torneoan sartu zuten, lasterketak prestigioa zuelako. 23 urtez azpiko eta eliteen mailako proba izan zen ordutik. Atarrabian afizionatuen lasterketa antolatzen zenean hura zen

"TXIKI TXIKITATIK GOGORATZEN DUT PROBA HAU. ZALETASUN HANDIA DAGO ALTSASUN"

Euskaldun Torneoko azken proba puntuagarria, baina hura antolatzeaz utzi zutenetik Altsasukoa da torneoa erabakitzen duena, eta horrek plus bat ematen dio gure lasterketari" azaldu zigun.

Altsasuko Txirrindularitza Proba antolatzeaz gain, txirrindularitza martxa oso bereziak antolatu zituen Altsasu Kirol Elkartek bere garaian, Altsasun hasi eta Bartzelonara bitartekoak. "Altsasu-Bartzelona maratona esaten genion, martxa klasikoak ziren. Aitzindariak izan ginen. Hiru Altsasu-Bartzelona martxa antolatu genituen, eta gero, beste elkarte batzuekin elkarlanean, Irun-Bartzelona eta Bilbo-Bartzelona martxak egin genituen" gogoratu du Montesinosek. Altsasu-Bartzelona martxa horietako baten argazki bat erakutsi zigun Eliseo Gorospek. "Ostira-lean Altsasutik ateratzen ginen bizikletan, 17:00etan, eta Bartzelonara hurrengo egunean 14:00ak aldera iristen ginen, bidea jarraian egiten baikenuen, atse-denik hartu gabe. Emaztea eta lagunak autoz joaten ziren Bartzelonara eta gero haiekin itzultzen ginen" egin zuen atzera Eliseok.

Eskerrik onenak

Montesinosek probaren antolaketan laguntzen jarraitzen duela nabarmendu zuen Mazkiananek. "Bereziki lan burokratikoetan aritzen da. Proba antolatzeke baimena ugari eskatu behar dira udaletxean, Foruzaingoan... eta horiek Miguel Angelen ardura dira. Administrazioan eta taldeetan ere kontaktu asko ditu eta papera kontuetan lan handia egiten du".

Mazkiananen esanetan buruhauste gehiena zirkuitua istea eta lasterketa egunerako beharrezkoak diren 100 boluntarioak lotzea da. "Festak dira eta horrek zaildu egiten du. Gurutzeak egiteko jende asko behar da, baita banderinak eramateko, epaileak eramateko auto-gidariak, megafonia-autoa, erratz-autoa, bi ambulanzia medikalizatu... guztia lotu behar da" aitortu zigun. Boluntarioez gain, proba antolatu ahal izateko Altsasuko komertzio, taberna eta entitateek emandako laguntza ere ezinbestekoa da, eta urte luze hauetan emandako laguntzagatik eskerrik onenak eman nahi dizkie babesle guztiei Altsasu Kirol Elkartek.

Bi bisita merezi duten sukaldariak

Igandean, 11:00etatik aurrera, Zubeztiako karpan V. Altsasuko Munduko Arrozak ekimena izanen da. Jatorri desberdineko altsasuarren artean harremanak bulkatzea, sakontzea edo hastea du helburu

ALTSASU

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko teknikari Begoña Zestau Baraibarrek esan digunez, arrozak prestatuko dituzten sukaldari altsasuarrek lanean ikusi nahi dituenak 11:00etatik aurrera izanen du aukera. Izan ere, hango eta hemengo kulturetan arrozak nola prestatzen diren, zein aldamenekok prestatzen duen, sukaldaria ezaguna den edo ez, nondik etorri den jakiteko aukera dute goizean zehar karpantik pasatzen direnek.

Zazpi arroz dastatzeko aukera izanen da igandean: Sahara, Altsasu, Valentzia (2), Maroko, Bulgaria eta Help-Na. "Azken momentuan hiru taldek ezin izan dute etorri". Arroz guztiak 14:00etarako prest izanen dira, orduan jendeak haiek dastatzeko aukera izanen baitu. Zestauk azpimarratu nahi izan du Munduko Arrozak ez dela gastronomia-lehiaketa. "Saria da jatorri anitzeko altsasuarrek hurbiltzea eta espazio publiko bat partekatzeari; elkarren ondoan egon eta elkar ezagutzeko, edo horretarako pauso bat ematea". Baraibarrek altsasuarrek animatu ditu karpantik bi bisita egitera, aurrena, arrozak nola egiten diren ikusteko eta, atzena, arro-



Munduko Arrozak ekimena altsasuarren topagune bihurtzen da. ARTXIBOA

zak dastatzeko. Jatekoez aparte, sentsibilizazio gune bat eta haurrendako jolasak izanen dira ere.

Berritasunak

Sukaldariak Mank-en mandarrak izanen dituzte lanerako, *errezeta aberatsean, zurrumurruak kanpoan* leloa dutenak. Enpatiarako, egitarako, errespeturako... deia izan nahi du mandarrak. Zurrumurruak pertsonen arteko erlazioak gaiztotu ditzaketela gaztigatzeko modua ere bada. Eskuak eta muturra garbitzeko eskuazpiek ere zurrumurruak ez irens-

tera gonbidatuko dute: "pentsatu ikusi, entzun edo irakurtzen dena egia den edo ez". Sentsibilizazio gunean zurrumurrua aurre egiteko euskarriak izanen dira.

Liburuxka batean jasoko dira sukaldarien errezetak, zurrumurruen kontrako errezeta berezi bat barne duena. Horrekin guztiarekin batera, Pantxika Lamur ere karpan izanen da. "Umoretik, saiaturako da pertsonen arteko harremanetarako zubi-lana egiten. Baita zurrumurru bat desaktibatzeak umore-keinuak erabiliko ditu".



Extremaduraren eguna ospatu zen igandean La Encina elkarteak antolatuta.

Piedras Albasekin 25 urte senidetuta

Altsasuko eta Piedras Albaseko alkateek senidetze agiria sinatu zuten gaur 25 urte

ALTSASU

Gaur bezala, festetako azken eguna zen 1994ko irailaren 17a. Euria eta hotza egin zuen. Horregatik, Gregorio Rodriguez Juanes (Goyo), Piedras Albasko alkateak, eta Jose Manuel Goikoetxea Askorbek, Altsasuko alkateak, bi herrien arteko senidetze agiria plazako eszenario gainean sinatu zuten eguerdian, jendaurrean. Senidetzearen lekukoaren artean zeuden Piedras Albastik autobusez etorritako 30 herritar baino gehiago, eta Caceresko Diputazioko ordezkaria. Agirian jaso zenez, "konpromisoa hartzen dugu bi udalen arteko harreman etengabeak mantentzeko; arlo guztietan herritarren arteko trukea sustatzea, elkar ulertzearen bidez, europar senidetasun sentimendu bizia eta nazioarteko elkartasuna sortzeko eta gure aukeren arabera, gure ahaleginak batzea beharrezko bakea eta oparotasuna lortzeko". Sinaduren aurretik bi lurraldeetako ereserkiak entzun ziren.

Eguraldiak ez zuen, Goikoetxeak nahi bezala, "ekitaldi ikusgarriago bat" egiten utzi. Ondoren, zinegotzi altsasuarrek (hiru faltatu ziren) Cacereskoei festetako ttattar gorri bana eta Altsasuko armarraria zuen pin bana oparitu zieten. Goikoetxeak Rodriguez markoan sartutako Nafarroako erliebedun-mapa bat oparitu zion eta haren eskutik Caceresi buruzko bi tomatoko entziklopedia eta ezkurralikorea jaso zituen. Segituan bi

dantzariak aureskua dantzatu zieten bi herrietako udalei. Ondoren, Gasteizko Extremadura-ko Etxeko Virgen de Guadalupe dantza taldeko 60 kidek eta Aitzindari dantza taldekoek erakustaldia eskaini zuten. 122 pertsona elkartu zituen senidetze-bazkariak, eguraldiagatik, Gure Etxea eraikinean egin behar izan zutena. Ekitaldiak 10:00etan hasi ziren, udaletxean egindako harrerarekin eta Otadiko Kristo Deuna ermitan izandako mezarekin.

Bi herriak senidetzeko hartu-emanak 1991n hasi ziren, lege-gintzaldiaren hasieran. Altsasuko ordezkariak 1994ko maiatzaren 6an izan zen Caceresko herrian. Eta haiek izan ziren festetan bisita bueltatu zutenak.

Alkateaz

Piedras Albasek 300 biztanle zituen 1994an, 149 2018an. Nekazaritza eta abeltzaintza zituen jarduera nagusiak. Orduko alkate Rodriguez 9 urteetatik 32 urteetara Altsasun bizi izan zen. Horregatik, egun hartan makina bat ezagun agurtu zituen. Azalduenez, berak eta Goikoetxeak eskolan elkarrekin ikasi zuten. Rodriguezek harrotasunez gogoratu zuen Santa Agedan errege izan zen aurreneko extremadurarra izan zela. Ordurako aita zen Rodriguez eta haurrekin urtean bitan Altsasura etortzen zela gaztigatu zuen, hemen baitzuten Teodora ama eta Juan, Justo, Antonia eta Dioni anai-arrebak.

Ongi pasa festetan!

ORLEGHY
-RENOVABLES-

Biomasa galdarak (pellet, egurra, ezpalak...)
Geotermia eta aerotermia
Instalazio eta mantentze zerbitzua
Pellet salmenta on-line

948 562 604 | 603 417 554 | Gipuzkoa kalea, 17 - Altsasu
www.orleghy.com - info@orleghy.com

BILTOKI
TIBERRA - JETETXER

Bokatak barran

948 467 876 - Altsasu



Peñek #AltsasukoFestak2019 traola erabiltzera animatu dute. ARTXIBOA

Peñen jaitsierek abiapuntu desberdinak izanen dituzte

Egunero herriko toki desberdin batetik abiatuko dira, eta gai bati eskainita egonen dira

ALTSASU

Altsasuko peñek aurtan euren jaitsierak toki desberdinetatik abiaraziko dituzte egunero, guztietan Foru plaza helmuga dutela. Gainera, egun bakoitzean gai bati eskainiko diote. Altsasuko Peñetatik azaldu digutenez, "jaitsieretara gero eta jende gutxiago dator. Jendea hasierako tabernan geratzen zen. Horri buelta emateko asmoz, jaitsierak berreskuratzeko aldatu ditugu hasiera puntuak. Gainera, ibilbide horiekin taberna batzuetan kontsumituko du jendeak".

Gaur, ostirala, Zumalakarregi plazatik Erkuden kalera aterako dira surf-jaitsiera izanen da. Larunbatean, autobus geltoki ondotik abiatuko dira peñakideak, mexikar jaitsiera egiteko. Domekan Beti Iaten elkartearen ondoan hasiko da jaitsiera hippy-a. Festibaleko jaitsiera, berriz, aste-

lehenean egingen da, Zumalakarregi plazatik Bakea kalerantz abiatuta. Eta azken peñen jaitsiera asteartean izanen da. Iortia kultur gunean jarri dute hitzordua, country jaitsiera egiteko. Guztien abiatze ordua 20:15ean izanen da.

III. erakusleihu lehiaketa

Altsasuko Dendarien Elkartek eta Altsasuko Peñek antolatu dute. Hainbat dendetan festekin loturiko erakusleihuak prestatu dituzte. Botoa Altsasuko peñen Facebookeko profilaren bidez eman daiteke. Hiru sari izanen dira

Udala "sexu-erasorik gabeko festen alde"

Mugimendu feministarekin batera joan den urtean egindako protokoloa martxan jarriko du

ALTSASU

Altsasuko Udalak "jendarte eta gizarte eragileekin batera emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitza eta festak lortzeko asmoz" lanean ari da. Eta festei begira adierazpena onartu zuen agorrilaren 28ko bilkuran. Han jaso denez, "eraso sexistak indarkeria matxistaren adierazpena dira, gure gizartean, baita gure herrian ere, dagoen genero desberdintasunaren adierazgarri". Altsasuko Udalaren iritziz "indarkeria hori ezabatu eta berdintasuna lortzeko egunero eta modo iraunkorrean lan egitea beharrezkoa da".

Udalak dei egin du: "guztioi festaz eta kaleaz gozatzeko konpromisoa har dezagun; beldurrik gabe, komentario matxistarik gabe, libre sentitzeko, eta baietz edo ezetz esaten dugunean, errespetatuak izateko". Deialdia egin diete gizon altsasuarrei "ez dai-tezen eraso horien konplize izan; aktiboak izan daitezen, eraso-tzaileak baztertuz, baita hurbi-lekoak badira ere". Azkenik, nabarmendu du larrialdi kasuan 112 telefonora hots egin daitekeela. Salaketa soziala egin nahi izanez gero mugimendu feministaren 611 227 043 telefonora hots egin daitekeela gogorarazi du.



Mugimendu feministaren protokolo aurkezpena. UTZITAKOA

Sexu-erasoak salatzeke telefonoa 24 ordur

611 227 043 telefono zenbakia kontaktuetan gorde eta hara hots eginez salaketa soziala egiteko aukera izanen da

ALTSASU

Altsasuko festetan sexu-erasoen salaketa soziala egiteko telefonoa martxan izan zen joan den urtean estreinakoz. Altsasuko mugimendu feministak eta Sakanako Neska* Gazteak salaketa telefonoa 24 ordur piztuta izanen dute aurtan ere. Aurtengoa zenbaki berria da, honakoa: 611 227 043. "Telefonoa kontaktuetan ongi gorde eta eraso matxistaren bat pairatu edo ikusiz gero, salaketa soziala egin beratar hots eginez". Bestela, altsasu.erasorikez@gmail.com e-posta helbidearen bidez ere salatu daitezke sexu-erasoak. Bestalde, Festak pertsona guztien gozamenarako direla kontuan izanik, hori posible egiteko Altsasuko mugimendu feministak gida argitaratu du. "Festetan denak ez duela balio. Festetan ere ezetza ezetza da".

Sakanako neska* gazteek ere bat egin dute sexu-erasoen kon-

trako protokoloarekin. Gainera, festetan besoko morea eramanen dute. "Helburua da sororitatea edo ahizpatasuna sustatzea eta gure arteko sareak indartzea, matxismoaren kontrako borroka festetan egotea". Horrekin batera, "festa eredu berri bat" aldarrikatu nahi dute. Aldi berean, "sexu-erasoen salaketa aurrez aurre jaso" nahi dute. Sakanako neska* gazteek nabarmendu dutenez, "edozein motatako erasoak salatzeke garrantzia azpimarratzen dugu".

Neska* gazteen deialdia

V. Euskal Herriko Jardunaldi Feministak azaroaren 1etik 3ra izanen dira. Horren aurrerapen gisa, Egin dezagun topa! lelopean neska* gazteen topaketa izanen da Lizarran lastailaren 4an eta 5ean. Lizarrako topaketetara begira Sakanako neska* gazteak elkartu dira.

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Patxarana egiteko anisa

24° takoa
28° takoa
35° takoa

3 litroko botilak

Geltoki suzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279 • hijosdegoikoetxea@yahoo.es

MAPFRE Altsasu

festa zoriontsuak opa dizkizuegu

948 563 354 • jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 • ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

Kaixo
Kafetegia- Jantetxea

Ondo pasa festak!

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restaurantekaixo.com

ALTSASUKO FESTAK



EGITARAU ZABALA FESTETARAKO

90 urtez Altsasuko festetan txirrindula proba antolatu dutenen ordezkariak batek piztuko du festen hasierako etxajua, eguerdian. Ia mende batez festetako kirol proba antolatzen aritu direnei aitortza egin nahi izan die udalak horrela. Ondoren bost eguneko ospakizuna hasiko da. Festak hasi baino ordu eta erdi lehenago, 10:30ean, Altsasuko Udalak harrera egingen dio 2018ko kintari. Udal ordezkariak 82 haurri (33 nesaki eta 49 mutiki) festetako ttattarra jarriko diete, haie-tatik 60 daude Altsasun erroldatuta. Astelehenean, berriaz, adinduei aitortza egiteko txanda izanen da. Bi adinduenek arrazoi pertsona-lengatik uko egin diote, baina izanen da haiei lekukoa hartuko dionik.

OSTIRALA 13

10:30 2018ko kintari harrera. Zapien janzea eta kintaren lehen argazkia, udaletxe parean.
10:30 Hamaiketako Altsasuko peñak antolatuta, gaztetxean.
11:30 2019 festen kartel lehiaketa-ko sari banaketa, udaletxean.
12:00 Festen eztanda handia, udaletxe parean. Altsasuko gaita-jole, txistulari eta erraldoiak, kalejira Altsasuko peñen txarangarekin eta Mutil Gazteak txaranga plazan.
16:00-20:00 Peñen kafea eta kalejira. Foru plazatik Zumalakarregi plazara. Merienda ibilbidean zehar.
18:00 Haurrendako antzerkia. Irrien lagunak, lortia zabalgunean.
19:30 Japoniar bonbak eta buruhandiak, Foru plazan.
19:30-21:30 Dantzaldia Tsunami orkestrarekin, Foru plazan.
20:00 Peñen jaitsiera surflaria, Zumalakarregi plazatik, 21:30ean iristea Foru plazara.
21:40 Zortzikoa, Altsasuko txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.
22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.
22:15-00:15 Gazte gaua*, Intxos-tiapunta.
23:30 Kontzertua. Reincidentes eta dj balber. Foru plazan.



LARUNBATA 14

9:30 Dianak Burundar txistulariekin.
10:30 Txirrindularitza. Eskolarteko proba. Burunda txirrindularitza elkarteak antolatua, Alzanika kalean.



10:30 Udalbatzaren irteera, udaletxetik, Altsasuko txistulariez lagunduta.
11:30 Auzatea, Zubeztia elkarteak eskainita, Foru plazan.
11:00-13:00 Altsasuko erraldoi eta buruhandiak. Irteera lortia zabalgune-tik.
12:00 Azken ezkil jotzea eta zortzikoa. Foru plazan.
13:00 Eguerdiko kontzertua Tarantela orkestrarekin, Foru plazan.
15:00 Herri bazkaria, Zelandi kiroldegian.
16:00 Peñen kafea eta kalejira. Zelandi kiroldegitik Zumalakarregi plazara. Merienda ibilbidean zehar.
18:00 Familiarteko kontzertua. Rock star, lortia zabalgunean.
18:00 Pilota partida profesionalak, Burunda pilotalekuan.
19:30 Japoniar bonbak eta buruhandiak, Foru plazan.
19:30-21:30 Dantzaldia Tarantela orkestrarekin, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera mexikarra autobus geltokitik, 21:30ean iristea Foru plazara.
21:40 Zortzikoa, Altsasuko txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.
22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.
22:15-00:15 Gazte gaua*, Intxos-tiapunta.
24:00-03:00 Dantzaldia Tarantela orkestrarekin, Foru plazan.
24:00-02:00 Peñen igoera Foru plazatik Zumalakarregi plazara.

DOMEKA 15

9:30 Dianak Haize Berriak bandarekin.
10:00-13:00 XC. Altsasu txirrindula lasterketa (23 urte azpiko eta elite maila) Altsasuko Kirol Elkarteak antolatuta, udaletxe paretik.
11:30 Auzatea, La Encina kultur elkarteak eskainia, Foru plazan.



11:30-14:30 Txiki parka eta txu-txu tren, lortia zabalgunean.
13:00 Eguerdiko kontzertua: Haize Berriak banda eta Lizarrako gaita-jotzaileak eta erraldoiak, Foru plazan.
13:00 Munduko arrozak. Gizarte zerbitzuak eta Anitzarteanek

antolatuta, Foru plazako karpan.
14:30 Peñen makarroi-jatea, Foru plazan.
16:00-20:00 Peñen kafea eta kalejira, Foru plazatik Zumalakarregi plazara. Merienda ibilbidean zehar.
16:00-19:00 Txiki parka eta txu-txu tren, lortia zabalgunean.
18:00 L. Otadiako Otadiko Kristo Deuna pilota txapelketako finalak, Altsasuko Kirol Elkarteak eta Pilotajauku Elkarteak antolatuta, Burunda pilotalekuan.
18:30 Antzekia: Sardina bakalau. Foru plazan.
19:30 Japoniar bonbak eta buruhandiak, Foru plazan.
20:00-21:30 Kontzertua: Elegancia mejicana mariatxia, Foru plazan.
20:00 Peñen jaitsiera hippy-a, Beti laten elkartetik, 21:30ean iristea foru plazara.



21:40 Zortzikoa, Altsasuko txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.
22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.
22:15-00:15 Gazte gauak*. Intxos-tiapuntan.
23:30-03:00 Disko festa Oihan Vegarekin, Foru plazan.

ASTELEHENA 16

09:30 Dianak Altsasuko gaitariekin.
11:30 Auzatea Beti iaten elkarteak eskainita, Foru plazan.
11:30 Haurrendako txapa tailerra, lortia zabalgunean.
12:00 Omenaldia herriko nagusiei.



TURKIN 1964- GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

678 323 403 • Iruia Hiribidea, 48 • 948 468 026 • Zumalakarregi Plaza, 3 • 670 389 017 • San Juan Kalea, 50 • 948 562 165 • Otadiko Kristo Deuna, 19 •

ALTSASU



Abardia jarriko zaie etxean, udal musika eskolak girotua.
12:00 Prezio berezia atrakzio meka-
nikoetan: euro 1.
13:00-20:00 Egurdiko kontzertua:
Trasteando, Foru plazan.
14:30 Nagusien omenezko bazkaria.
Ondoren dantzaldia. Iortia kultur
gunean.
16:00-20:00 Peñen kafea eta kale-
jira, Foru plazatik Zumalakarregi
plazara. Merienda ibilbidean zehar.
17:30 Play back lehiaketa eta txo-
kolate-jana Kukurrekka elkarteak
eskainita, Foru plazan.
19:30-21:30 Dantzaldia Gauargi
taldearekin, Foru plazan.
19:30 Japoniar bonbak eta buruhan-
diak, Foru plazan.
20:00 Peñen jaitsiera festibaleroa
Zumalakarregi plazatik, 21:30ean
iristea Foru plazara.
21:40 Zortzikoa, Altsasuko txistula-
riekin eta Larrain Dantza Etxarriko
gaita-jotzaileekin, Foru plazan.
22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.
22:15-00:30 Gazte gaua* Intxostia-
puntan eta zezen mekanikoa (patioan).
24:00-02:30 Dantzaldia Gauargi
taldearekin, Foru plazan.

ASTEARTEA 17

09:00 Dianak Altsasuko gaitariekin.
11:30 Auzatea Amandrea elkarteak
eskainita, Foru plazan.
11:30 Haurrendako tailerra, Iortia
zabalgunean.
13:00 Egurdiko kontzertua: Arantza
eta Pantxo, Foru plazan.

16:00-20:00 Peñen kafea eta kale-
jira, Foru plazatik Zumalakarregi
plazara. Merienda ibilbidean zehar.
18:00 Poniak eta betizuak, Iortia
zabalgunean.
19:30-21:30 Dantzaldia Puro Relajo
taldearekin, Foru plazan.
19:30 Japoniar bonbak eta buruhan-
diak, Foru plazan.
20:00 Peñen jaitsiera countrya Iortia
plazatik, 21:30ean iristea Foru pla-
zara.
21:40 Zortzikoa, Altsasuko txistula-
riekin eta Larrain Dantza Etxarriko
gaita-jotzaileekin, Foru plazan.
22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.
Ondoren, festen agurra eta azken
petardo sorta udaletxean. Ondoren
Altsasuko peñen kalejira.

*Jolastu, dantzatu, afaldu (sukaldea
irekita egonen da eta freskagarriak
udalaren kontura izanen dira).



HERRI MUGIMENDUEN EGITARAUA



KUADRILLEN EGUNA ESTREINAKOZ ANTOLATU DUTE

Hala aurkeztu zuten antolatzaileek Kuadrillen Eguna. "Herri mugimenduko hausnarketatik jaio" dela gaztigatu zuten, "Altsasuko kuadrillek festak bere sentitzeko, haiek antolakuntzan murgiltzeko eta kuadrillen arteko interakzioa bulkatzeko" antolatu dute eguna. Hainbat bile-
ra egin dituzte ospakizuna antolatzeko garilaz geroztik eta eguna behar bezala antolatzeko hainbat lantalde sortu zituzten. Guztien artean antolatu dute Kuadrillen eguna, astelehenean ospatuko dena.

"Betidanik kuadrillen artean pikeak izan dira. Oraingoan pike sanoak izanen dira: kuadrilla batek besteari olinpiadetarako eta playbakerako erronka luzatuko dio". Horietan parte hartze-
ko erronka bideoa sare soziale-
tara igo behar dute kuadrillek. Bestela, tabernetan dauden ze-
rrendetan eman daiteke izena. Bestalde, estreinako Kuadrillen Egunerako kamixetak atera di-
tuzte eta astelehenean hura jan-

tzita izanen dute parte-hartzaileek.

Antolatzaileek gaztigatu zute-
nez, "gure herriko festak, herri-
tik eta herriarentzat sustatu eta
jorratzearen beharra" nabar-
mendu zuten aurkezpenean.
"Herri antolatu bat edukitzea
berebiziko afera da. Mugitzen
den herria ez baita inoiz hilko".

OSTIRALA 13

10:30 Gosaia, gaztetxien.
13:00 Euskal preso ta iheslarienga-
tik elkartasun brindisa.
13:30 Brindis feminista, plazako
txoznan. Sakanako neska* gazteak.
15:00 Elkartasun bazkaia.
16:30 Peñain kafeak.
18:00 Gaztetxeko mustutzea.
20:15 Jaitsiera.
00:00 Ttek elektrotxaranga.
03:00 Kontzertua karpan: Aiaralde-
ko Sound System.
04:00 Magrak, gaztetxien.

LANBATA 14

14:00 AHTren kontrako tirolina,
Zelandin.

14:30 Herri bazkaia.
16:30 Peñain kafeak eta kalejira.
19:30 Manifestaziyua: Balda eta
Imanol herrian eta libre. Eraso-
en elkartasuna eta antolakuntza.
20:15 Jaitsiera.
22:00 Kontzertuak karpan: Alerta
Gorria eta Batec.
01:00 Igoera.
01:00 Karpan: Kokonut dj.
04:00 Magrak, gaztetxien.

DOMEKA 15

15:00 Makarroi-jana.
16:30 Peñain kafeak.
17:30 Elkarte-poteua.
20:15 Jaitsiera.
22:00 Kantaitan afaia.
00:00 Kontzertua karpan: Tirri & Tery.
04:00 Magrak, gaztetxien.

ASTELEHENA 16

KUADRILLEN EGUNA

12:30 Amalur eta Haritz bakarlar-
iak, gaztetxeko plazatxoan.
15:00 Kuadrillen bazkaia, karpan.
16:30 Peñain kafeak.
17:30 Altsasuko kuadrillen elektro-
txaranga eta olinpiadak, herrian
barna.
20:15 Jaitsiera.
22:00 Maravillas ogitarteko-jana.
22:30 Musika-bingoa, karpan.
23:30 Kuadrillen arteko playback-a,
karpan.
00:30 Zumba, karpan.
04:00 Magrak, gaztetxien.

ASTEARTEA 17

15:00 Azken bazkaia.
16:30 Peñain kafeak.
17:00 Sakatu elektrotxaranga.
20:15 Jaitsiera.
00:01 Kalejira txarangarekin.
01:30 Karpan: musika aukeran eta
japi aguer.



Nork jantziko ditu 50. urteurreneko txapelak?

PILOTA Igandean 50. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketako finalak jokatuko dira, 18:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Finaletan sakandarrak izango ditugu: Igoa-Alonso, emakumezkoetan, eta Olaetxea-Lazkoz eta Nazabal-Arbizu, helduetan

Altsasu Kirol Elkarateak eta Pilotajaukuk antolatutako 50. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketa azken txanpara iritsi da. Aurten data borobila ospatzen du afizionatuen mailako pilota torneo ezagunak, eta afizionatuen mailako bikote bikainak ari dira parte hartzen, tartean sakandarrak.

Hiru mailatan jokatzen ari da txapelketa: emakumezkoetan, gazteen mailan eta helduen edo promesen mailan, eta maila bakoitzean hiru bikote daude lehian. Lehendabiziko hiru jardunaldietan, bikote guztiak elkarren kontra aritu dira. Larunbatean hirugarren jardunaldia jokatuko zen eta orduan jakin izan da zein bikote jokatuko duten finala.

Helduetan, sakandarren arteko finala

Gauzak horrela, igandean, Altsasuko festetan, arratsaldeko 18:00etan Burunda pilotalekuan abiatuko dira 50. Otadiko Kristo



Final ikusgarriak espero dira igandean Burundan, sakandarrak tarteko ARTXIBOA

Deuna Pilota Txapelketako finalak. Emakumezkoetan, Leire Garaien eta Naroa Agirreren kontra ariko dira Irati Igoa eta Xarriarra eta Sonia Alonso. Akaso Garaik eta Agirrek dute faboritoen txartela, baina Igoak eta

Alonsok dena emango dute, zaleen babesa izango dute eta partida entretenigarria espero da. Gizonen artean, Beñat Senar eta Altuna aurrelariak finalean aritzekoak ziren elkarren kontra, baina beste konpromiso

batzuk dituzte eta baja dira. Horrela, bikoteak berregin behar izan ditu antolakuntzak eta Jorge Fernandez errioxarrak eta Ander Garmendiak Aingeru De la Fuente eta Adrian Azpiroz nafarrak izango dituzte aurkari. Kasu honetan ere partida lehiatua espero da. Eta, bukatzeko, gizonen artean helduen mailan sakandarren arteko lehia izanen da, Irurtzun klubeko bi bikoteen artekoa: Urtzi Nazabalek eta Aaron Arbizuk Iosu Olaetxea eta Ion Lazkoz izango dituzte arerio. Partida lehiatu eta ikusgarria espero da eta Burundako zaleak erdibituta egongo dira.

Sari ematea

Bukaeran, 50. edizio berezi honetako sariak eta txapelak banatuko dituzte Altsasu Kirol Elkarateak eta Pilotajaukuk.

Finalak

igandean jokatuko dira, 18:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan

Finalak

- **Emakumeak** Leire Garai-Naroa Agirre / Irati Igoa-Sonia Alonso
- **Gazteak** Jorge Fernandez-Ander Garmendia / Aingeru De la Fuente-Adrian Azpiroz
- **Helduak** Iosu Olaetxea-Ion Lazkoz / Urtzi Nazabal-Aaron Arbizu



laz Lizarragan izan zen, aurten Dorraon.

ATLETISMOA Ergoienako Birak Mercero izanen du gogoan

Irailaren 21ean jokatuko den XV. Ergoienako Birak aurten zendutako Joxe Mari Mercero korrikalari unanuar beterano handia izanen du gogoan. Horrela, lasterketa J. M. Merceroren Oroimenezko 1. Saria izango da aldi berean.

Proba Dorraon hasi eta despidutako da, hemendik aste batera, irailaren 21ean, goizeko 10:00etatik aurrera abiatuta, eta Dorraon, Unanu eta Lizarragatik pasako da, 8,5 km-ko distantzia osatuz. Lasterketa gorabeheratsua da Ergoienakoa, urtero bezala Sakankako Koparako baliagarria izango dena. Bertan aritzeko egunean bertan eman beharko da izena, goizeko 9:00etatik aurrera, Dorraon.

Ezkurdia eta Zabaleta aurkari Altsasuko festetan

PILOTA Bihar, larunbatean, 18:00etan, Ezkurdia-Rezusta Irribarria-Zabaletaren kontra ariko dira

Aurten ere Altsasuko festetan goi mailako pilota jaialdia izango da eta pilotari sakandarrak lanean ikusteko aukera paregabea izango dugu.

Larunbatean hasiko da Aspek Altsasun antolatu duen jaialdia, 18:00etan. Jaialdia zabalitzeko Mendizabal III.ak eta Ladis Galarzak Jaka eta Tolosa izango dituzte aurkari, eta partida nagusian Joseba Ezkurdia eta Jose Javier Zabaleta sakandarrak ariko dira, kasu honetan elkarren kontra. Ezkurdia Rezustarekin

osatuko du bikoia, Irribarriaren eta Zabaletaren kontra aritzeko. Partida lehiatua aurreikusten da, bai aurreko koadroetan eta baita atzekoetan ere.

Sarrerak

Sarrerak salgai daude pilota enpresen web gunean (https://proticketing.com/pelotavasca/es_ES/tickets). Kantxa nagusiko sarrerak 32 euro balio dituzte eta goiko solairukoak, aldiz, 21 euro. Egunean bertan ere txarteldegian erosi ahal izango dira.

San Mateoak: Zabaleta Victorrekin, Ezkurdia Mariezkurrenarekin eta Martija Bengoetxearekin

Irailaren 21ean hasiko da 40. Logroño San Mateo FERIA, sanferminen atzetik udako 2. torneo prestigiotsuena. Bikote guztiak mistoak izanen dira, hau da, Aspe eta Baiko enpresako pilotariak elkarrekin osatuko dituzte bikoak. Sei bikote lehiatuko dira, bi multzotan. Lehen multzoko bikoteak Victor-Zabaleta, Olaizola-Rezusta eta Ezkurdia-Mariezkurrena II.a izango dira, eta bigarren multzokoak Bengoetxea VI.a-Martija, Irribarria-Albisu eta Altuna III.a-Imaz. Bikote orekatuak dira eta torneo ikusgarria espero da.

San Mateoek udako txapelduna erabakiko dute. Jose Javier Za-



Ezkurdia eta Zabaleta bihar aurkari izango dira Altsasun. IÑIGO ALZUGARAY

baletak Sanferminetako Torneo irabazi zuen Ezkurdia-rekin, eta Elgoibarko Torneo Artolarekin. Martijak ere bi torneo irabazi ditu, eta biak Altunarekin: Labastidakoa eta Zarauzkoa. Gas-

teizko finalerako sailkatu ziren Martija eta Ezkurdia, baina finalean erori ziren, Bengoetxearen eta Imazen kontra. Ezkurdia torneo bakarria irabazi du, Sanferminetako.



Astearteko aurkezpenean 2019/2020 denboraldiko talde argazkia atera zuen Osasuna Magna Xotak. XOTA

Osasuna Magna: lau irurtzundar lehen mailan

ARETO FUTBOLA Gaur ekingo diote berdeek Areto Futboleko Lehen Mailako denboraldiari. Plantilla mugatuagoarekin, helburuak berberak dira: Koparako eta play-offetarako sailkatzea. Llamas, Martil, Saldise eta Cerviño dira irurtzundarrak

Osasuna Magna Xotak 2019/2020 denboraldiko aurkezpena egin zuen asteartean Nafarroako Unibertsitate Kliniketan. Imanol Arregi entrenatzaile irurtzundarrak bere 19. denboraldia osatuko du entrenatzaile lanetan. 13 jokalaria izango ditu bere esanetara, horietatik bi berri: Mario Almagro atezain madrildarra eta Diego Mancuso hegaleko-pibot brasildarra. Aurtengoa, beraz, plantilla motzagoa da, izandako hiru bajetatik soilik bi ordezkatu ahal izan baitira. Hala ere, gogotsu daude Irurtzundar taldean.

Inoiz baino gehiago harrobira jo beharko du Imanolek, gaur hasiko den denboraldi gogorrari aurre egiteko. “Gaudenak gaude, eta harrobietako jokalaria. Lesioak ez egoteko otoitz egin behar dugu. Hala bada eta ongi aritzen bagara, lehendabiziko zortzi postuetan egoteko borrokan egongo gara” esan zuen.

Nahiz eta plantilla justua izan, helburuak aurreko urteko berberak dira: Espainiako Kopa

jokatu ahal izateko borrokatzea eta ligako titulua erabakitzeke play-offetarako sailkatzea, hau da, lehendabiziko 8 postuetan. “Oso tenkorrak gara eta partida bakoitzean duguna emango dugu. Gure akats eta bertuteekin egotari aurre egiten saiatuko gara. Eta, bereziki, gure afizioari alaitasunen bat ematen saiatuko gara” aitortu zuen.

Irurtzundarrak goi mailan

Osasuna Magna Xotako lehen mailako plantilla osatzen duten 13 jokalarien artean lau irurtzundar daude: Asier Llamas atezaina, Roberto Martil atzelaria, taldeko kapitaina dena, Dani Saldise hegaleko jokalaria eta aurtun harrobitik igo eta talde

AURTEN, INOIZ BAINO GEHIAGO, HARROBIRA JO BEHARKO DU IMANOLEK, PLANTILLA MOTZAGOA DUELAKO

nagusiarekin estreinatu zen Ion Cerviño atzelaria. Haiekin batera, ondokoek osatuko dute plantilla: Mario Almagro atezain madrildarra, Araça atzelari brasildarra, Juninho atzelari brasildarra, Alex Llamas hegaleko jokalaria bartzelonarra, Bynho hegaleko brasildarra, Rafa Usin hegaleko-pibot madrildarra, Eric Martel pibot bartzelonarra, Iñigo Fernandez hegaleko-atsaile eta Diego Mancuso hegaleko-pibot brasildarra.

Gaur Cordobaren kontra

Gaur ekingo dio Osasuna Magna Xotak denboraldiari. Aurten mailaz igo den Cordoba izango dute aurkari berdeek, 21:00etan, Cordoban.

Nafarroako Kopako irabazleak Ostiralean Nafarroako Kopa lortu zuen talde berdeak Tafallan, Aspil Jumpers Ribera de Navarra partida estuan 2 eta 1 irabazita. Xotaren Nafarroako laugarren kopa da honakoa.

Altsasuko bi taldeek galduz ekin diote denboraldiari

FUTBOLA Erregionaleko mutilek Zizurren kontra galdu zuten eta emakumeek Izarraren kontra

Gizonezkoen erregional mailako 2. multzoan, asteburu honetan hasiko da liga, baina Altsasuko festak direla eta, Altsasuko Zizurren kontrako partida aurreratu egin zuen. Partida ona jokatu zuten altsasuarrek, baina ez zuen zortea alde izan eta 0 eta 1 irabazi zuen Zizurrek.

Emakumezkoen erregional mailako 1. jardunaldian Izarra taldearen kontra aritu ziren altsasuarrek eta galera garrantzitsua izan zuten, Izarrak agintea hartu eta 6 eta 0 irabazi baitzien. Saillapenean Castejon da lider

(3 puntu) eta Altsasu 16.a da, punturik gabe. 2. jardunaldiko partida gaur, ostiralean, jokatuko du Altsasuko, etxean, 18:30etan, Baztan taldearen kontra.

Preferente maila abian

Asteburuan hasiko da Preferente mailako 2019/2020 denboraldia.

Asteburuko lehen jardunaldian, San Jorgeren kontra ariko da Etxarri bihar larunbatean Iruñean, 16:00etan. Lagun Arteak, aldiz, Ilunberri taldea hartuko du bihar, larunbatean, 17:00etan, Zelai Berrin.



GOZATU EUSKARA!

948 012 012
Dirulaguntzak matrikularako

www.euskaraikasi.nafarroa.eus
www.eifai.eus

Antolatzaileak

Udalak: Agoitz, Antsoain, Aranguren, Artzi, Atarrabia, Auritz, Barafain, Basaburua, Berriobiti, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Erro, Estella-Lizarra, Esteribar, Etxauri, Galar, Gares, Imotz, Luzaide, Odieta, Oitza Zendea, Orkolen, Uhartea, Ultzama, Zizur Nagusia.
Mankomunitateak: Iruñea, Izaola, Izaola, Sakana.
Batzorde Nagusiak: Aezkoa, Erronkari, Zeraizua.





Iker Gorriti Lakuntzako festetan.

Beltza eta Gorriti etzi Irurtzunen lehiatuko dira

AIZKORA Igandean, Euskal Herriko III. Mailako kanporaketa jokatu da Irurtzunen, 18:00etan

Irurtzun eta Arakilgo Bertako Ganadu Azoka hartuko du igandean Irurtzunek. Goizetik aurrera makina bat ekitaldi izanen dira, eta herri kirolak ere bere tokia izanen du. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketako 3. kanporaketa jokatu da Irurtzongo plazan.

Guztira 11 aizkolarari ariko dira lanean, horietako bi sakandarrak, Goizeder Beltza etxarriarra eta Iker Gorriti uharte arakildarra. Haiekin batera Mikel Agirre, Jon Esnal, Haritz Esnal, Urtzi Olasagasti, Patxi Mindegia, Eneko Saralegi, Emilio Garcia, Jon Telletxea eta Jacinto Etxekona-nea ariko dira lanean. Guztiek lau kanaerdiko erdibitu beharko dituzte, eta lehen bi sailkatuak final handirako sailkatuko dira, aurretik jokatuak beste bi kanporaketan sailkatuak beste lau aizkolariekin batera.

Beltza Nafarroako II. Mailako finala jokatu du

Abuztuaren 17an Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu zen Arantzan. Lehendabiziko bostek lortu zuten finalerako txartela: Jesus Etxeberriak, Patxi Mindegia, Xuban Kañamaresek, Goizeder Beltzak eta Mikel Indakotxeak.

Erbiti eta Izagirre, Mundialetako zerrendan

TXIRRINDULARITZA Igandean Espainiako Vuelta despeditu eta gero jakinaraziko du Espainiako selekzionatzaileak Mundialetara joango direnen behin betiko zerrenda. Aurre-sailkatuetan Vueltan murgilduta dauden Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre daude

Irailaren 29an Txirrindularitza Mundialak jokatu dira Yorkshiren. Pascual Mompalier Espainiako selekzionatzaileak asteazkenean aurkeztutako aurre-sailkatuen zerrendan daude Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre sakan-darrak beste 14 hautagaiekin batera, baina igandean despedituko den Vuelta pasa arte itxarongo du selekzionatzaileak behin betiko zerrenda aurkezteko.

Imanol Erbiti (Movistar Team) eta Gorka Izagirre (Astana) Espainiako Vueltan daude, euren liderren alde sekulako lana egiten. Askok argi ez badute ere, Vuelta ez dago itxita eta Madril-en eta Avilan igandera bitartean



Erbiti ikusgarri dabil. MOVISTAR

jokatuko diren etapetan "borroka handia" espero du Primoz Roglic (Jumbo) liderrak. Atzo etapa menditsua jokatu zen Madrilgo mendizerran, eta emaitza horien faltan, etapa hasieran Roglic liderrak 2:24 minutura zuen Nairo Quintana eta 2:48ra Alejandro Valverde, bezperan Movistar Teamek lasterketa apurtu eta sailkapena irauli eta gero. Etapa horretan Nairo Quintana airean eramanez ikusgarri aritu zen Imanol Erbiti, eta Gorka Izagirre ere hustu egin zen Lopez taldeburua laguntzen. Jose Luis Arrieta uhartearrak zuzentzen duen taldeak argi du Vuelta ez dagoela erabakita.

Hugo Aznar, Arabako Kadeteen Itzuliko liderra

TXIRRINDULARITZA Asteburuan Arabako Itzuliko 2 etapa jokatu ziren. Taldekako erlojupekoan Quesos Albeniz gailendu zen eta lidergoa lortu zuen Hugo Aznarrek, eta bigarren etapa Sakana Groupeko Martzel Etxeberriak irabazi zuen; Aznar da lider

Larunbatean hasi zen kadeteen mailako XLII. Arabako Itzulia, Arroiabean jokatuak 10 km-ko taldekako erlojupekoarekin. Burunda klubeko Quesos Albeniz taldea ikusgarri aritu zen eta gorritxoek denbora onena egin zuten (14:07 minutu). Aralar klubeko Sakana Group taldea seigarrena sartu zen, 36 segundora. Horrela, Quesos Albenizko Korteko Hugo Aznar txirrindulariak jantzi zuen liderraren maillota.


Igandean bigarren etapa jokatu zen, Artziniegan (59 km). Tropel nagusia batera iritsi zen helmugara, eta Sakana Group-Aralar taldeko Martzel Etxeberria iturmendiarrak gailendu zen

(1:28:59), Hugo Aznar hirugarrena sartu zen eta bere taldekide Sergio Lopez laugarrena.

Hugo Aznarrek eusten dio Arabako Itzuliko lidergoari (1:43:06), bere taldekide Sergio Lopez, Mikel Uncillaren eta Oihan Etxeberriaren aurretik. Martzel Etxeberria 18.a da, Jon Erdozia (Sakana G.) 19.a, Jon Chamorro (Q. Albeniz) 23.a, Alex Lopetegi (Sakana G.) 26.a, Ander Villalobos (Q. Albeniz) 53.a eta Unax Trebejo (Q. Albeniz) 55.a. Itzuliko talderik onena Quesos Albeniz-Burunda da. Arabako Itzuliko 3. eta azken etapa igandean jokatu da, Dulantzina (55 km), goizeko 11:00etatik aurrera.

Juniorrak: Udazkeneko Kriteriuma

Asteburuan junior mailako Udazkeneko Kriteriuma jokatu zen Gipuzkoan. Larunbatean lehen etaparen txanda izan zen Oñatin (83 km), eta igandean 55 km-ko etapa Liernin. Bi etapa horietan sailkatu ziren lehen 45 txirrindulariek 4 kilometroko erlojupekoa jokatu zuten. Azkenean, Iñaki Diazek irabazi zuen Kriteriuma. Jon Gil lakuntzarra (Lizarte) 4.a sailkatu zen, Unai Aznar (Q. Albeniz) 6.a, Aitor Alberdi (Sakana G.) 9.a, Inhar Astitz (Sakana G.) 33.a, Mikel Lizasoain (Sakana G. 34.a) eta Unax Miran-da (Sakana G.) 40.a.



Olatzagutia-Urba. ARTXIBOA

Km Bertikalean eta Olaztin izena emateko azken egunak

MENDI LASTERKETAK

Uharteko proba irailaren 22an jokatu da, eta Olazitikoa irailaren 28an

Irailarekin batera bi mendi lasterketa jokatzeko dira gurean. Lehen irailaren 22an izango da, igandearekin, Aralar Mendi elkartek antolatutako XI. Uharteko Arakil-Beriain Km Bertikala. Eta, bigarrena, Olatzagutia-Ur-basa Mendi Lasterketa, irailaren 28an Olazitiko San Migel festen barruan jokatu dena.

Uharteko Arakil-Beriain Km Bertikala (5 km, 1.023 m. desnibela) Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako baliagarria da. Horretaz gain, Euskal Mendi Federazioaren Euskal Herriko Mendi Errankinerako puntuagarria izango da. Dagoeneko 200 korrikalarik eman dute izena, eta epea zabalik dago, irailaren 17ko 23:59ak arte (17 euro), Rockthesport web gunean.

Olatzagutia-Urba. ibilbidea ezagutzeko hitzordua etzi

XIII. Olatzagutia-Urba. Mendi Lasterketan (15 km eta 900 m. desnibela) izena ematea zabalik dago www.herrikrosa.eus web gunean irailaren 25eko 23:59ak arte. Irailaren 21era arte 15 euro ordaindu beharko dira eta irailaren 22tik 25era 18 euro.

Ibilbidea erakusteko antolatzaileek hitzordua jarri dute etzi, igandean, Olaztin, goizeko 9:30ean.

"Zoragarria izan da munduko onenekin egotea"

SERGIO GARCIA DE EULATE MAIA TRIATLETA

TRIATLOIA Sakana Triatloi Taldea gorenera iritsi da, igandean Niza 70.3 World Championship Ironmanean aritu baitzen altsasuarra. Esperientziaren berri eman digu

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Noiz hasi zinen triatloian?

Beti ibili izan naiz bizikletan eta korrika. Duatloian hasi nintzen, eta hurrengo pausua izan zen aurreko bie ikeriketa gehitzea eta triatloian hastea. 6 urte inguru daramatzat triatloian.

Triatloia osatzen duten hiru kirol horien artean zein egiten zaizu konplikatuena?

Igeriketa. Sakanan beti esaten dugu "lehorrekoak" garela eta horrela da, nabaritzen da. Igeriketan ez naiz ongi aritzen, hiru kirolestatik maila baxuena dut. Baina hobetzeko eta gaintzeko gauza bat bezala hartzen dut.

Inguruko triatloi probetan afizionatu bezala aritzea gauza bat da, baina zuk saltoa eman zenuen, Espainiako Triatloi Kopan aritzera pasa zinelako.

Bai, badakizu nola den hau. Laserteketa batera joaten hasten zara, gero bestera, lagunak egiten dituzu, animatzen zoaz, gutxika pixka bat gehiago... Kirola serioago hartzen hasi nintzen eta ordu gehiago sartzen.

Egunero entrenatzen duzu?

Niri gehiena lehiatzea gustatzen zait, eta horretarako astean sei egunez aritu behar duzu eta bat libre utzi, errekuaratzeko. Normalean kirol bat lantzen dugu egun bakoitzean, baina astean bi egunetan konbinatu egiten ditut; egun batean korrika eta igeri egin, eta asteburuan, denbora gehiagorekin, bizikleta bizpahiru ordu hartu eta jarraian korrika egin...

Kirol batetik besterako trantsizioak entrenatzeko, ezta?

Bai, hori da. Trantsizio edo aldaketa horiek egiteko entrenatu behar da, muskuluak eta gorpuzka kirol batetik bestera asko aldatzen direlako.

Espainiako Kopan bi urtez aritu izan zara, eta zure kategorian txapel-duna izan zinen.

Bai, iaz eta duela bi urte lehiatu nintzen. Aurrean ez dut parte har-



Sergio Garcia de Eulate Nizako Mundialean, bizikleta segmentuan. UTZITAKOA

tu, Mundialearako klasifikatzeko Europa mailako proba batean aritu beharra nuelako. Hortaz, ez nuen tartea Espainiako Kopan aritzeko. Nire mailan, 35 eta 39 adin tartean, duela bi urte Espainiako Kopa irabazi nuen eta iaz txapeladunordea izan nintzen. **Ironman 70.3 Greece proban lehiatu zinen apirilaren 14an. Europa mailako txapelketa horretan 1.400 triatleten artean 19.a sailkatu zinen maila absolutuan eta zure mailan seigarrena izan zinen. Emaizta ikusgarria da...**

Ironmanean 2 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrikan egin behar genituen. Kasualitatez nahiko ongi igeri egin nuen, niretzat arraroa dena. Hori aprobetxatu behar nuen, eta ondoren bizikletan oso ongi ibili nintzen eta korrikan ongi. Arerioak ez ziren horren fin ibili (kar, kar...), eta, egia esan, eguna ongi aprobetxatu nuen.

"MUNDIALERA EZ NINTZEN LEHIATZERA JOAN, BAIZIK ETA DISFRUTATZERA, ETA POZIK NAGO"

Gorputzak proba horiek aguantatu al ditzake? Ez al da gehiegixko?

Gorputzarendako akaso ez da oso ona izango, baina hori da gustuko duguna. Dena den, distantzia horietan aritzeko oso ongi entrenatu behar duzu. Hilabeteak ematen ditugu guztia ongi prestatzen.

Greziako postu bikain horri esker igandean Nizan jokatuak Triatloi Ironman Mundialerako sailkatu zinen. Aurreko astean esan zenuen ez zirela zure onenean joaten.

Ni normalean irailean ez naiz lehiatzen, udan lasai egoten naiz atsedean hartzen, baina aurtengo Mundiala horrela tokatu da, irailean. Entrenatu dut, baina gutxiago. Lasai aritu naiz, nekatu antzera ere banengoelako, batez ere buruz nekatuta. Eta lehiatzeko eta ongi entrenatzeko oso garrantzitsua da buruz ongi egotea. Hortaz, Mundialera ez nintzen joan horrenbeste lehiatza, baizik eta disfrutatza, giroa ikustera eta munduko onenak gertutik ikustera. Bi lagunekin joan nintzen; Xabier Gonzalezek mekaniko lanak egin zituen eta Tomas Guiradok masaje lanak, eta oso gustura egon ginen. Pisu batean egon ginen

asteburuan lasterketa prestatzen. Izugarri lagundu naute eta errazago izan da niretzat. Oso babes-tua sentitu naiz, ongi pasatu dugu eta eurekin egotea handia izan da niretzat.

Ironmanak berez gogorrak dira, baina igandean Nizan jokatuakoa are gogorragoa zela aipatu digute, txirrindularitza segmentuan portu gogorra zegoelako.

2 km igeri, 90 km bizikletan eta 21 km korrikan ziren. Txirrindularitza 90 kilometroetatik ia 45 aldapan gora ziren, eta tartean 10 kilometroko portua zegoen, %7ko maldarekin. Gogorra zen, lasai hartu beharrekoa, bestela gero korrika egitea oso gogorra egiten delako. Proba luzeak dira hauek eta ezin zara topera joan, esfortzua kontrolatu behar duzu. Horrela, badaukazu tarte pixka bat ere paisaiatzeko, itsasoa eta mendia eta giroa ikusteko. Karreraz disfrutatzen.

Nola ibili zinen?

Nire mailan 520 triatleten artean 304.a sailkatu nintzen eta maila absolutuan edo orokorrean 3.300 triatleta geunden eta 1.300 postu inguruan sailkatu nintzen. Puntako proba zen, guztiak triatleta bikainak ziren, aurretik sailkatutakoak; beste maila bat da hori, maila oso altua. Eta hemen ez dago sekreturik: ongi entrenatuta bazoaz, hobe zoaz. Udan lasaiago egon naiz eta banekien ezengoela momenturik onenean. Horrela, txipa aldatu nuen eta disfrutatza joan nintzen, giroaz gozatza. Igual nire lehenengo eta azken Mundiala da, eta momentua disfrutatu behar duzu. Eta ni gustura nago egindakoarekin. Oso pozik nago bizitako esperientziarekin, munduko onenen artean ibili nintzelako eta joan ginen hiru lagunekin bikain pasa genuelako.

Munduko onenak beste maila batean daude baina, oso urrun edo ez da horrenbesterako?

Bai, oso urrun daude, ia ordu batera (kar, kar...). Nik ironmana 5 ordutan egin nuen (05:06:28) eta irabazleak, Gustav Iden norbegiarrak lau ordutan (03:52:13). Emakumezkoetan Daniela Ryf gailendu zen (04:23:04). Profesio-

"TRIATLOIA MODU BIKAINA DA HIRU KIROLEAN ARITZEKO. GUZTIZ HARRAPATZEN ZAITU"

nalak dira, beste maila bat dute eta munduko onenak dira. Guk gure bidaia ordaintzen dugu, gure bizikleta, materiala... eta eurak sekulako hotela zuten justu hondartza aurrean, baina horrela izan behar du, profesionalak dira, onenak, eta merezi dute. Oso polita izan zen beraiekin zirkuitu berdinean lehiatzea. Ez ditut idolo asko baina estatuan Mario Mola eta ingurukoak onenen artean daude, eta berarekin egon naiz mundial batean. Horrekin gelditzen naiz.

Sakana Triatloi Taldeko kidea zara. Nola dago taldea?

30-35 taldekide gaude guztira, 10 txiki eta gainontzekoak helduak. Ikastaro eta taldeetan izena emateko momentua da hau, une aproposa jendeari gogorarazteko hemen gaudela, norbait gogoekin badago jakin dezala gurekin harremanetan jartzearekin nahikoa dela triatloian hasteko eta gurekin aritzeko. Facebook (Sakana Triatloi Taldea) bidez jarri daiteke gurekin harremanetan, edo gugana etortzen.

Zer ematen dizu triatloiak?

Kirola gustuko dut, eta uste dut urte guztia soilik txirrindularitza aritzen edo soilik korrika egiten emango banu aspertuko nintzatekeela. Eta triatloia modu bikaina da hiru kirolean aritzeko. Kirol ezberdinak egitean, gorputza hobe dago, ez dira atal berberak horrenbeste zigortzen. Eta, horretaz gain, kirol honek guztiz harrapatzen zaitu. Jendea triatloian aritzera animatuko nuke. Nik serioago hartzen dut, baina modu askotan egin daiteke, lasaiago. Ez dituzu soilik hankak lantzen, edo besoak. Oso kirol osoa da. Eta burua ere lantzen eta arintzen duzu. Niretzat hori oso garrantzitsua da, lanetik atera, bizikleta hartu eta buelta bat eman, deskonektatzeko eta ongi sentitzeko.

Hemendik aurrera zer?

Igeri egiteari eta bizikletan ibiltzeari utziko diot. 6-7 lagun Behobia-Donostiara joango gara eta elkarrekin prestatuko dugu lasterketa. Neguan korrika egitea gustuko dut. Bestalde, une honetan pentsatzen ari naiz hemendik aurrera pixkat suabeago ariko naizela. Espainiako Kopan aritu naiz, Europa mailako Greziako ironmanean, igandeko Nizako Mundialean... akaso unea da zehozkeraz lasaitzeko. Ez triatloia uzteko, gustukoa dudalako, baina bai lasaiago hartzeko.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 13

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 14

ALTSASU Altsasu-Lizarraga-Lizarra-Villatuerta-Etxarri-Altsasu 95 km-tako ibilbidea eginen du Barranka txirindula errepide taldeak.
08:30ean, suhiltzaileen paretik.

ETXARRI ARANATZ Beheko basoko toponimia ibilbidea Jose Luis Erdoziarekin.
10:00etatik 12:00etara, Basopokaletik.

ALTSASU Agur uda festa: haur jolasak, Lorena Arangoaren antzerkia, Makusai taldearen

kontzertua eta abar.
17:00etan, Itxasperrin.

UHARTE ARAKIL Misteriozko baso eta mahastiak programa: Izarrei so.
20:45etik 22:00etara, Aralarko santutegian.

IGANDEA 15

OLAZTI Orhi-ra irteera eginen dute Sakanako mendizaleek.
06:00etan, herritik.

ALTSASU Beundera 37 km-tako ibilbidea eginen du Barranka BTT taldeak.
09:00etan, Zumalakarregi plazatik.

IRURTZUN Arakilgo eta Irurtzungo VII. Bertako Ganadu Azoka.
10:00etatik aurrera, plazan.

ALTSASU Euskal presoak Euskal

Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 16

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.
12:00etan, plazan.

ASTEAZKENA 18

OLAZTI Oinarritzko aromaterapia tailerra.
18:00etan, kultur etxeko 2. solairuan.

OSTEGUNA 19

OLAZTI Aralar, mundua leku den lurra dokumentalaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

Aralartik izarrak begiratzeko aukera

Larunbatean, 20:45etik 22:00etara, Aralarko santutegian. Ez da alde aurretik izena eman behar

SAKANA

Nafarroako Gobernuak *Misteriozko baso eta mahastiak* turismo-kanpaina martxan jarri du udazkenari begira. Foru administrazioak kanpaina horrekin "naturari, ondareari eta tradizioei emozioetatik hurbiltzeko modu aktiboa planteatzen du", hainbat jardueraren bitartez. Foru administrazioarekin lankidetzan, Plazaola Turismo Partzuergoak eta Sakanako Garapen Agentziak izarrak behatzeko gaueko saioa proposatu dute, "ondarean edertasunaz eta atmosfera garbiaz gozatzeko". Aralarko taberna zabalik egonen da.

Doakoa izango da eta jatekoa, berokia eta prismatikoak eramatea gomendatu dute.

Uda despeditzeko plana prest Itxasperrin

Larunbatean, 17:00etatik aurrera, Egiarretako Itxasperri ermitaren inguruan

ARAKIL / EGIARRETA

Arakilgo Udalaren Kultura Zerbitzuak udari agur esateko ospakizuna antolatu du larunbaterako. *Agur uda festa* arratsaldeko 17:00etan hasiko da Tramankulu haurrendako jolasekin. 18:00etan, berriz, Lorena Arangoa klownaren emanaldia izanen da.

Eta arratsaldea bi talderen kontzertuekin despedituko da. Batetik, O'tegi Band & The Neighbors-ek doinu akustikoak zabalduko ditu. Eta, bestetik, Makusai. *Agur uda festa* irauteen duen bitartean Zaporeak gobernu kanpoko erakundearen barra izanen da eta pintxo-potea eskainiko dute.

Toponimoak pasiatzen ezagutzeko aukera

Larunbatean, 10:00etan, Basopokaletik hasiko da beheko basoan barnako 2 orduko ibilbidea

ETXARRI ARANATZ

Herriko toki izenak kultur-ondarea direla jakinik, Etxarri Aranazko Udaleko Euskara Batzordeak haiek jaso eta ofizialdu egin ditu. Aldi berean, herriko tokiak etxarriarren artean zabaltzeko toponimia-ibilaldiak antolatzen hasi zen. Jose Luis Erdozia aditua buru dela egiten dira ibilbide horiek. Beheko basoan egiten duten hirugarren ibilbidea izanen da larunbatekoa eta Artxan inguruan ariko dira, inguruko toponimoak zein diren aletzen.



Joan den urteko toponimia ibilbidea.



ALTSASU Altsasuko festa erakusleho lehiaketa. Altsasuko Peñak eta ADEk antolatuta. Irailaren 17ra arte, ADEko dendetan.



UTZITAKOA

OLAZTI Zurrumurruen atzetik, pertsonak erakusketa. Irailaren 18ra arte. 16:30etik 20:30era, Olaztiko liburutegia.

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROAK

Olaztiko udala: Indoor zikloa, yoga, pilates eta gimnasia-tonifikazioa kirol ikastaroetan izena emateko epea irailaren 14an amaitzen da, Erburua kiroldegian 948 564 512ra deituz.

Office 365 suite informatikoa: Club de Marketing enpresak, Cederna Garalur Elkartearekin lankidetzan, Office 365 suite informatikoari buruzko informazio-hitzaldia antolatuta du. Lastailaren 2an, 9:30etik 12:30era, Altsasuko enplegu bulegoan izanen da. Hitzaldia ofimatikako tresnekin lan egiten duten eta hodelan bestelako funtzionaltasun kolaboratibo batzuk (datuak biltegiratzea, informazioa eta lan-egutegiak partekatzea, datu-analisiak eta bestelakoak) ezagutu eta aplikatu nahi dituztenei bideratuta dago. Dohainik da. Izena emateko: <https://www.clubdemarketing.org/u.asp?u=332019121>

HARREMANAK

Sakanatik Iruñera goi-zer lanera joateko kotxe bila dabilen gazte bat naiz. Kepa 648 760 567.

LAN ESKAERA

Altsasuko neska euskaldunak Sakanan haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko bere burua eskaintzen du abuztutik aurrera. Amaia 617 60 33 17.

LEHIAKETA

Egile berrientzako Iruñeko Udaren XXIX. Euskarazko Literatur lehiaketa: parte hartu ahaliko dute nafar egileek

edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenek. Poesia, Narrazioa eta Bertso-paperak modali-tateak. Lan bana modali-tate bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 5ean amaitzen da. Informazio gehiago www.iruñakulturada.eus helbidean.

OHARRAK

Odol-emateak Etxarri Aranatz: irailaren 18an eta 25ean, 17:00etatik 20:30ra.

Etxarri Aranazko Guaixe Bazkideei oharra: Aste honetatik aurrera Guaixeren banaketa ostiral goizetan egingo da aldatetaz jakinarazi ezean. Edozein zalantza argitzeko admin@guaixe.eus helbidean edo 618 882 675 tfnoan.

Bakaikuko udala: Adin-duendako gimnasia (60 urtetik gorakoentzat) astelehen eta asteazkenetan, 17:15etik 18:15era eta Zumba astelehen eta asteazkenetan, 18:00etatik 19:00etara. Izen emateak 948 562 509 tfnoan (12:00etatik 14:00etara), 637 750 765 WhatsApp mezua bidalita edo udala@bakaiku.eus emailera idatziz. Irailaren 15a arte dago epea. Ikastaroak lastailean hasten dira.

AHT-ko lanetara mendi martxa: Mugitu! Mugimenduak azaroaren 9 eta 10ean Marcilla eta Tafalla artean AHTaren aurkako mendi marxa bat antolatu du. Helburua tarte horretako AHTaren proiektua ezagutzea eta abiatu dituzten lanak bertatik bertara ikustea da. Bestalde, zonaldeko oposizioarekiko harremanak

nak estutzea eta martxak zeharkatuko dituen herrietan informazioa zabaltea da. Argibide gehiago: <http://mugitu.blogspot.com/>

11/13 SUMARIOA: 47 auzipetu hiru bat hilabetez Madril en epaituko dituzte. 337.462 euroko gastuak izanen dituzte. Horri aurre egiteko diru ekarpenak eskatu dituzte. Horiek Laboral Kutxaren ES82 3035 0057 9205 7005 9033 kontu korrontean sar daitezke.

Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataformak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatuz egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AE-Kren Itsasi euskarlegian duzu informazio guztia guztia.

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arba-zuarraren erronkan parte hartzea gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabarraino mendi lasterketa eta gazta trukaketa "Bideak" dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eu/eu/crowdfunding-kanpaina> web-gunean.

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK


• **Julen Iradi Gonzalez,** irailaren 4an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.




EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 13




Eguraldi egonkorra izango dugu. Eguzkitsua izango da eguna eta ondorioz, tenperaturek nabari egingo dute gora.

Igandea, 15




Egunak antzeko jarraituko du, baina hodei gehiago agertuko dira zeruan eta egunaren une batzuetan euria egin lezake.

Larunbata, 14



Eguraldiak ez du aldatzeko traza handirik izango eta berriz ere giro argia izango dugu, nahiz eta lainoen presentzia izan daitekeen.

Astelehena, 16



Eguraldia nahasi xamarra izango da astelehenean. Lainotuta egongo da, baina eguzkia eta euria ikus dezakegu.

OROIGARRIA



Alberto



Soilik ahazten dena dago hilda

Etxekoak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Iruñea – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- f Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Orritz-Iskidi taldeko "artalde" handitu da

'Ardien transhumantzia eroa' ikuskizuna mustu berri du Orritz-Iskidi taldeak. Duela hogeit urte sortutako izaki mitologikoei 20 bat ardi batu zaizkie, baita Bilboko Txaloka antzerki taldeko artzaina ere

IRURTZUN

"Haurrak gurekin ateratzeko moztarro baten bila ari ginen". Txape Iriarte Orritz-Iskidi taldeko sortzaileetako bat izan zen duela hogeit urte inguru. Gaur egun, taldean jarraitzen du ideia "eroak" sortuz. Baina haren ideiak ez ziren posible izango atzean duen guraso eta haur talderik gabe. Denek batera sortu dute artzain bat, ardiak eta izaki mitologikoak protagonistak dituen kaleko ikuskizuna. Nafarroako Gatzaren festan mustu zuten ikuskizuna, baina "entsegu orokorra" izan zela diote taldean. Su proba asteburuan ospatutako Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdia izan zen. "Esperientzia ikaragarria izan da".

Ideia Bilbon sortu zen. Orritz-Iskidiko pertsonaiak hiriaren Olentzorendako gutun bilketan aritu ziren, eta bertan Txalokako "artzaina, txakurra eta hiru ardi" zeuden. "Ardi horietan arreta jarri nuen". Iskidiko izakiekin bat egin zezaketela irudikatzen zuen: Basajaunarekin, ardiak jan nahi dituen Gizotsoarekin, Tartalorekin... Haurrendako moztarroa aurkitu zuten.

Dantza eta folklore taldeak eskolaz kanpoko ikastaroak egiten ditu. Hortaz, hurrei zanzaparrak eramaten erakusten diete. "Baina batzuetan aspergarriak dira, eta trikimakoetan ibiltzen irakasten hasi ginen". Trikimakoekin ibiltzeko pertsonai bat behar zuten. Aurretik ere Galtzagorriak egin zituzten taldeko txikienek eramateko, Iskidiko familia handituz. "Hogeit urte hauetan pertsonaiak batuz joan dira".

Familia handia

Hogeit ardiek osatzen dute *Ardien transhumantzia eroa* ikuskizuna, eta hogeit ardi horien atzean beste hainbat ama, aita eta lagun daude. Izan ere, ardiak zazpi eta hamabi urte bitarteko haurrak dira. Txaloka antzerki taldeak



"Ardien transhumantzia eroa"-ren une bat Gatzaren festan. UTZITAKOIA

'ARDIEN TRANSHUMANTZIA EROA' IKUSKIZUNEAN 80 BAT PERTSONEK PARTE HARTU DUTE

ere Iskidiren ikuskizun ibiltarian parte hartzen du. Gainera, hurrei clown ikastaroa eskaini zien, eta ikuskizuna sortzeko behar zuten materiala utzi zien ere. "Gure trikimakoak etxean egingoak ziren, egurrezkoak. Txalokako Iurek trikimako profesionalak erakutsi zizkigun, eta azkenean erosi genituen". Antzerki taldearekiko harremana "oso ona" izan dela esan dute Orritz-Iskidiko taldekideek. Hasieratik prestutasuna agertu dutela esan dute. "Haiek profesionalak dira".

Ardien transhumantzia eroa ikuskizunak, izenak dioen bezala, ardien ibilbide bat kontatzen du. Artzain "ero" batek gidatzen ditu ardiak, Basajaun eta Basandererekin batera. Hortik zehar ere Akerbeltz egoten da, nahiz eta batzuetan "gidatu baino, gehiago mugitzen dituen ardiak".

Bidean izaki mitologikoekin elkartzen dira: ardiak jan nahi dituen Gizotsoarekin, Tartalorekin, hemendik hona ibiltzen diren Galtzagorri eta Mikelatsak...

"Jantzia ikusi genuenean pentsatu genuen: baina nora zoaz horrekin". Ardien hogeit jantziak Iskidiko familiekin eta lagunek egin dituzte. Ana Carmen Aizpun jostunak ere modu "altruista" parte hartu du sorkuntzan. "Orritzeko jantziak egin zituen, eta orain ardienak egin ditu ere". Josteari gustua hartu omen diote, eta nekazari jantziak egiten "saiautuko" dira ere.

Asteburua elkarrekin

Antzezlan batean aritzeak hurrei onurak ekartzen dizkiela ziurtatu du guraso taldeak. Lotsak kentzeko eta jendearekin aritzeko laguntzen diela esan dute. "Nire alaba, esaterako, oso lotsatia da eta honekin ikusi dut ireki dela, eta nolabait lotsa hori kendu dela". Izan ere, ardiak makillatua doaz eta horrela "desinhibitzen" direla esan dute. Harremanetan sor ditzakeen onurak ez ezik, taldean aritzera eta elkarrekin bizitzera eta aritzera ikasten dutela esan dute gurasoek ere.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Berriz hemen harria jasotzen

Udako oporrak bukatu dira eta, berriz ere, bakoitza bere lanpostuan dago. Zintzo-zintzo. Batzuek hemen igaro dituzte udako egunak, beste batzuek atzerrian; adibidez, Grezian, harritzarrak ikusten. Harriak eta harriak ikusten dira non-nahi herri hartan. Zutabe gehienak erori dira, baina banaka batzuek zutik diraute, ezeri eutsi gabe, tarteka zeruko hodeiren bati ez bada. Nork igoko zituen bata bestearen gainetik? Haiekek ere harrijasotzaile itzelak izanen ziren (ez gureak bezain onak, noski!).

Baina orduko harriak jasotzen zituztenen artean bazen bat guztien gainetik nabaritzen zena: Sisifo, Korintoko erregea. Hura bai harrijasotzaile ederra!

Harriaren mundua ia ikusezina izan da menderen mendetan Iñaki Perurenak kirolen mailara igo duen arte. Baina, bera baino lehenago Sisifo izan zen harriaren kirolari ospea eman ziona.

Irailetik ekainera Sisifok errege bati zegozkion lanak egiten zituen: bidaiariak jo eta erasotu haien ondasunak lapurtzeko eta aberatsagoa bilakatzeko. Uztailean eta

abuztuan oporretara joan ohi zen, atsedena hartzera. Zeus jainkoak hori ez zela bizimodua eta Sisifok kirolen bat egin behar zuela pentsatu zuen. Hori dela eta, harri jasotzea asmatu zuen, baita ona zela ikusi ere!

Sisifok, ordean, ez zuen hasiera batean kirol berri honen sorrera begi onez ikusi. Ez dugu inor engainatuko. Ez zuen horretan aritu nahi eta Tanatos entrenatzailea kateaz lotu zuen gimnasiora eraman ez zezan. Hades bera engainatu zuen eta gimnasiotik hanka egin zuen, denbora luzez bere emaztearekin betiereko oporretan biziz eta jailetan zeuden herri guztiak bisitatuz eta kalimotxo edanez.

Baina iraila ailegatu zen eta Hadesek harrapatu zuen berriro, gimnasioaren bidea erakutsiz. Lana ez zen soilik harri esferikoa jasotzea, baizik eta mendi baten puntara igotzea; kaskora iristean bola botatzen zen beste isurialdera eta berriz ere igo behar zuen, berriro muinotik erortzeko eta jasotzeko berriro, honela ekainera arte. Orain Gabonetako oporrak noiz iritsiko diren pentsatzen ematen du eguna.



Musikaren historia

Pink Tones taldeak Pink Floyd taldearen musika hartu eta birsortzen du, talde britaniarraren tributu hoberenetarikoak bihurtuz. Kultur 2019 programari esker Pink Tones Altsasun egon zen, eta gerturatu ziren rock zaleen iritziak, begiak itxita talde mitikoaren kontzertu bat zela zirudien. Baina Pink Tones-en emanaldiak begiak irekita disfrutatzea behar dira.

"Garrantzitsuena denak ongi pasatzea da"

DAVID SANCHEZ HAIZE BERRIAK BANDAREN ZUZENDARIETAKO BAT
Altsasuko festetan kontzertua eskainiko du Haize Berriak Sakanako bandak.
David Sanchezek musikariak zuzentzeko ardura izanen du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Luis Orduña hamalau urtez Haize Berriak bandako zuzendaria izandakoak batuta utzi zuenetik, bi zuzendariekin lanean ari da banda. Altsasuko festetan, irailaren 15ean, igandean, kontzertua eskainiko du Sakanako bandak, eta David Sanchez izanen da zuzendaria. Sanchez bandaren behin betiko zuzendaria izan daiteke.

Nola da Haize Berriak zuzentzea?

Ongi. Lehenengo egunetik giro ona dago. Gertutasun giroa dago eta erraztasun guztiak eman dizkirate. Nik ongi pasatzen dut, eta hori garrantzitsuena dela uste dut. Musikariak ere ongi pasatzen dutela uste dut.

Nola iritsi zitzaizun aukera?

Juntakideak kontaktuak hartzen egon ziren, eta eskaerarekin deitu zidaten. Zuzendariekin probak egingo zituztela esan zidaten, hainbat kontzertu egin beharko nituela, eta baldintzak azaldu zizkidaten. Eta hemen gaude. Egia esan, ez nuen aurretik Haize Berriak ezagutzen. Erriberrikoa naiz eta hemendik gutxitan aritu naiz. Gustura hartu nuen eskaera. Hasieratik baietz esan nuen.

Zein da zure ibilbidea musikan?

Luzea. Erriberriko musika eskolan hasi nintzen sei urterekin. Perkusioa ikasi nuen; Pablo Sarasate konterbatorioan perkusioa goi maila ikasi nuen eta, ondoren, musika zuzendaritza karrera egin nuen Aragoiko konterbatorioan. Murillo del Fruto banda zuzendu dut, baita orkestraren bat ere.

Zergatik zuzendaritza?

Ez dakit. Goi mailako azken ikasturtean erabaki nuen. Perkusioarekin nahiko erreta bukatu nuen. Irakasle batekin hainbat urte egon nintzen, eta azken urtean aldatu zidaten. Aldaketa oso handia izan zen. Irakasleak asko estutu ninduen, eta nahiko nekatuta bukatu nuen. Zuzendaritzak beti deitu dit, betidanik



David Sanchez zuzendaria Haize Berriak bandaren entsegu batean.

"EZ BADUZU KONTZERTUETAN DISFRUTATZEN, EZ DUZU GUZTIA EMATEN"

eskuak mugitu izan ditut zuzentzen ariko banintz bezala. Urte horretan esan nuen: zergatik ez? Sarbide probak bakarrik prestatu nituen, irakasle batek ariketak zuzentzen zizkidan, zortea izan nuen eta aurrera.

Zein da zuzendariaren lana?

Nik gutxien egiten badut, hobe. Hobe haiendako, ez diedalako molestak; eta hobe niretako, ez dudalako asko egin behar. Lan handiena haiek egiten dute. Nire lana denafintzea da; interpretazioa fintzea. Gauzak nola egin esan behar diet, arazoak konpondu... Lanaren ikuspuntua hartu eta zuzendariak buruan duenaren antzera egiten saiatu. Kontzertuetan ikus-entzuleendako ikusgarriena da, baina musikariendako gutxien ikusten dena da. Garrantzitsuena entseguetan gertatzen da. Entrenatzailearen eta psikologoaren arteko zerbait da.

Nolakoa izango da igandeko kontzertua?

Ez ohiko kontzertua izatea nahi genuen. Betikotik aldentzea. Bizi naizen tokian ere halakoak egiten dira: proposatu nien festetan gehien parte hartzen duten Altsasuko kolektiboekin batera kontzertua egitea. Ezinezkoa da elkarte guztiak batzea, baina bai garrantzitsuenetarikoa. Ikus-kizun bat izango da. Jendeak parte hartzeko kontzertua izango da. Entseguak ongi doaz, nahiz eta iraila hilabete zaila izan. Muntatzeko ez da oso zaila, eta eskatzen dietena egiten dute. Ongi doa; erraza egiten dute.

Proban zaude. Presioa sentitzen duzu?

Ez. Nik badut dohaina edo akatsa, norberaren iritzia izango da, dena ongi egitea gustatzen zaidala. Zuzendaritzaren alde honetan dena ez da nire erantzukizuna, baina musikari bezala ez zait huts egiten gustatzen. Ez da presioa aukeratua izateagatik edo ez. Presio hori gainean badut, lau edo bost kontzertu hauek ez ditut gozatuko. Eta ez dut hori nahi. Ez baduzu disfrutatzen, ez duzu guztia ematen. Kontzertu baten presioa da; lan bat da, eta ongi egin behar da.

Udako lehiaketaren irabazleak



1. saria

Gau bat zuhaitz-etxola batean Artzibarko hariztian



Kok buru - Karlos Lanza

2. saria

Kayak jaitsiera bi pertsonendako Oria ibaian



Ilunabarra - Naiara Ortzanko

3. saria

Kayak jaitsiera bi pertsonendako Oria ibaian



Azken ilunsentia (Irurtzun) - Garazi Ortiz

11 GALDERA



Gaur egun dauden erraldoiak eta taldea. Peio Palacios eskuinetik bigarrena.

"Hemengo erraldoiak izatea da ideia"

Altsasuko festetako egun handian, irailaren 14an, bihar, bi erraldoi berri mustuko dituzte. Garai desberdinetan erraldoiekin aritutakoak omenduko dituzte ere. Peio Palacios duela ia hogeitaz urte egon zen taldean; gaur egungo taldea 2011n sortu zen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Nola hasi zineten erraldoiak eramaten?

Peio. Betidanik gustatu izan zaizkit eta lagun batekin sartu nintzen 1984an. 2001 urtera arte egon nintzen, gorputzak iraun zuen arte.

Jesus Guzman. 2002. urtean haiek utzi zutenean geldialdi bat egon

zen, eta udalak kanpoko jendea kontratatzen zuen. Lau edo bost urtez ez zen erraldoirik egon. Peñek deialdi bat egin zuten eta hamar bat pertsonako talde bat elkartu ginen. Gaur egun arte.

2 Zer behar da erraldoi bat eramateko?

J. Gogoak behar dira, ezer gehiago. Ez da genero edo fisiko kontu bat.

3 Dantza jakin behar da?

J. Gu orain dantzatzeko saiatzen gara. 2011n erraldoiak berreskuratu zirenean, peñek Iruñeko eta Burlatako konpartsa kide bat kontratatu zuten. Taldean norbaitek ez badu bere burua dantzan ikusten, bakarrik kalejira egiten du eta ongi etorria da. Azken finean, erraldoia eramatea da kontua.

P. Gu saiatzen ginen, zerbait egin genuen.

4 Zenbat pisatzen dute Altsasuko erraldoiek?

J. Sorgina ez da 40 kiloetara iristen, gehien pisatzen duena Momotxorroa da, 50 kilo pasa, eta beste biak pisu horretan ibiliko dira. Berriek 45 eta 42 kilo pisatzen dute. Hemen arazoa da gaizki egindak daudela.

P. Oso gaizki orekatuta daude.

5 Zenbat pertsona behar dira erraldoiak ateratzeko?

J. Gaur egun 10 eta 12 lagun gauden. Normalean ez gara denak egoten. Duela lau urte esan genuen erraldoi bakoitzarendako gutxienez bi pertsona ez bazeuden, ez ginela aterako. Bat barruan doa eta bestea kanpoan, sor daitezkeen arazo guztiak kontrolatzeko.

P. Gu 18 edo 20 pertsona izatera iritsi ginen. Hasieran lau erraldoi ziren, eta gero beste bi etorri ziren. Normalean ez genituen seiak ateratzen. Fisikoki ezinezkoa zen. Gutxienez erraldoi bati pertsona joaten ginen.

6 Altsasuko erraldoiak eramateko arazoak izan dira beti?

J. Aurreko taldeak utzi zuenetik gu sartu ginen arte geldituta zegoen. Orain gauden taldea ateratzeko arazoak ez ditugu. Hasieratik oso argi izan dugu Altsasun egin behar diren derri gorrezko lau irteerak egingo ditugula: Festetan bi egun, feriak eta Alde Zaharrako festak.

P. Guk oso garai ona bizi izan genuen. Baina oso sakrifikatua da. Orain lau aldiz ateratzen dituzte, baina guk astebururo irteera bat geneukan.

7 Orain egonkortasuna izatea lortu duzue.

J. Egonkortasuna badugu, jendeak badaki Altsasun ziur aterako garela. Ez gaude gaizki, baina aurrera egiteko jende gehiago behar dugu.

8 Erraldoi bikote bat mustuko duzue bihar. Seiak aterako dituzue?

J. Lehenengoak 1940ko hamarkadakoak dira, bigarrenak 1990koak. Erraldoi zaharrak existitzen dira; ez dena existitzen estruktura da. Hondatu ziren eta ez zituzten berri konpondu. Kanpotik ongi daudela dirudien arren, barrutik oso hondatuta daude. Ideia da Altsasuko herriarekin erlazionatutako erraldoiak izatea. Beraz, lau erraldoi egongo dira, herriko festekin harremana dutenak: Inauteriak eta Santa Ageda.

9 Momotxorro eta Sorgina erraldioen egoera, beraz, ez da hobereena.

Urte asko dituzte, ia 30 urte, eta ez dute mantenu oso ona izan.

10 Zein da biharko plana?

J. Ostiralean gaur egungo erraldoiekin aterako gara: Momotxorro, Sorgina, Marco Antonio eta Cleopatra. Larunbatean, ekitaldi txiki bat egingo dugu. Bi erraldoi berriak eramango dira, baita Momotxorro eta Sorgina ere. Horiak izango dira hemendik aurrera aterako ditugun erraldoiak. Gainera, erraldoi taldean parte hartu duen jende guztia gonbidatu dugu.

11 Zer sentitzen da erraldoi bat eramaten?

P. Entsegura sartu naizenean ilea laztu zait, benetan.

J. Ongi egin nahi duzu, eta presioa sentitzen da. Ongi pasatzen dugu.

BAZKIDE ZOZKETA IRAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

EUREKAI ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
 EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:

DONOSTIAKO AQUARIUMA: SARRERA BANA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN



eureka!
 zientzia museoa
KUTXA FUNDAZIOA

Ekain berri



CAMPING
 ARTAZA

AQUARIUM